



## Mugikortasun berrirantz

Udalak irurtzundarren parte hartze prozesu baten bidez egin nahi du mugikortasun plana / 11

**Emakumezkoen aldarrikapenak ozen entzun ziren hainbat bilkura eta manifestazioetan** / 8-9

**Burunda txirrindularitza klubak ilusioz ekin dio bere 45. denboraldiari** / 17

**Nafarroako Herri Kirol Jokoetarako sokatira taldeak prestatzen dabiltza Lizarraga ahizpak** / 18-19

**Xabier Artieda etxarriarrak 'Nire beldurrik maiteenak' antzezlanaren eginen du Altsasun** / 21

**Iñaki Auzmendik 'A Sembrar' diskoa kaleratu du, eta Lakuntzan aurkeztu zuen** / 22-23





Kontxi Etxeberria Solis denda zenaren atean.

# "Herri txiki bat dendarik eta tabernarik gabe oso tristea da"

**KONTXI ETXEBERRIA SOLIS DENDARI OHIA**

Berria zabaldu zain, otsailaren 28az geroztik Bakaikuko herria dendarik gabe, estankorik gabe dago

doren taberna ixtea erabaki genuen. Denda lotura da, baina taberna okerragoa da.

**Noiz hasi zinen denda?**

Gazte nintzela, 18 urterekin hasi nintzen denda jarraian lanean. 45 urte ego naiz denda. Hartu nuenean lehengo denda modukoa zen, balda altu batzuk eta mostradore altua. Niretako zaharra. Garaiak eskatzen zuen beste denda mota bat. Nik denda jarraitzea erabaki nuenean erosoago jartzea erabaki nuen, nire gustuko denda. Obra egin eta supermerkatuen moduan jarri nuen, jendeak produktuak hartzeko. Garai hartan oso berria zen.

**Zer esan zuten bezeroek aldaketarekin?**

Jendea ez zegoen ohituta baldara joan eta hartzera. Ez zekien gauzak non zeuden, zeren dena aldatu genuen. Baina hasieran. Jende gaztea ez, baina jende heldua, amonak-eta, bai. Baina berehala ohitu ziren. Lehendabiziko eguna. Gero bigarrena eta hirugarrena, oso erraza, bazekiten non zeuden gauzak.

**Zein etortzen zen dendara erostera?**

Gehienetan bakaikuarrak ziren. Iturmenditik ere etortzen ziren, han ez baitago estankorik, zigarro eske-eta. Eta Urdiaindik ere, han ere ez baitago estankorik. Gainera, jendea gelditzeko oso toki erraza da, bideberri ondoan dago. Batzuetan Etxarritik. Gelditzeko oso eroso da.

**Zer eroketa mota egiten zuten?**

Urteekin gauzak aldatu dira. Garai batean jendea gauzak erostera etortzen zen. Baina azkeneko urteetan gauzak aldatu dira. Jendeak erosketak kanpoan egin eta hemen eguneroko gauzak erosten ditu: ogia, egunkaria, fruta... Gauzak aldatu dira eta bizitza aldatzen da. Onartzen dut. Horrela da.

**"NIK DENDAN JARRAITZEA ERABAKI NUENEAN EROSOAGO JARTZEA ERABAKI NUEN"**

**Alfredo Alvaro Igoa** BAKAIKU

Bakaikuarren omenaldia jasota, dendaren itxieragatik pena adierazpenak entzunez, hala joan zaizkio azken egunak orain arte mostradore atzean zerbitzatzen egon denari.

**Noiz zabaldu zituen ateak dendak?**

Nire aitonak eta amonak ez zuten bakarrik estankoa, denda eta taberna bazuten ere. Gero gurasoen eskutara pasa zen. Ni azkenekoa naiz. Ama hil zenean erabaki genuen taberna ixtea eta denda eta estankoa izatea bakarrik.

**Garai bateko denda haietako bat izanen zen.**

Bai, ehun urte pasa bai. Denetarik zuten. Eta orduak, goizetik gauera arte. Egun osoa egoten ziren, gelditu gabe. Gainera, amari sukaldian ibiltzea gustatzen zitzaion eta jendea merendatzera eta afaltzera etortzen zen. Gaixotu eta hil zen, eta on-



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak  
www.ventanasegoki.com

**KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



**Denda kateren baten barruan zeunden?**

Betidaniko dendan kooperatiban egon naiz. Azken urteetan Coviran da. Baina lehen, Iruñetik, San Migel kooperatiba zen. Ondoren, Euskadiko dendan kooperatibekin elkartu ginen. Eta orain dela hamar bat urte Espainian Coviran sortu zen. Zentzuala Granadan dago, baina banaketa plataforma Gasteizen dago. Beraz, nik astean behin eskaera egiten nuen eta generoa zekarren kamioia ostegunetan etortzen zen. Fruta astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan etortzen zen.

**Kooperatiba dendan indarrak batzeko eta zerbitzu hobea eskaintzeko izanen zen, ezta?**

Orain dela 20 urte eta gaur egun abantaila handia zen, bestela prezioekin lehiatzea ezinezkoa da. Prezio aldetik-eta, niretako eta jendearendako hobe da.

**Merkataritza zentro handiak hirietan ezarri zirenean, kontsumo aldatuta izan zen. Zer moduz moldatu zinen?**

Gauzak aldatu dira, gehien bat, azkeneko hamar urteetan. Gauzak horrela dira. Bizitzak jarraitzen du. Badakigu aldatuta batzuk onak direla, eta beste batzuk ez hain onak. Baina onartu behar da.

**Internet bidez erosteko ohiturak eragin dizu?**

Ez. Nire dendara etortzen zen jendea adina zuten bakaikuarrak ziren. Jendeari gustatzen zaio ikustea gauzak, erostea, zurekin egotea. Beste modu bat da. Niri jendearekin egotea gehiago gustatzen zait. Badakit Internet etorkizuna dela, baina ez zait batere gustatzen.

**Sare sozialak erabili dituzu?**

Ez. Egia esan, azken urteetan gauzak eskatzeko modua aldatu da, makinaren bidez. Baina, esaterako, betidanik gustatu zait fruteroari nik eskatzea eta hitz egitea, nahiz eta telefonoz izan. Asteburuan erantzungailuan utzi behar nuen, baina niri prezioez, generoaz galdetzea gustatzen zait. Nahiago jendearekin Internet edo Whatsapparekin baino. Batzuetan bai, baina nahia-

go dut beste modura, bestela oso hotza da.

**Konfiantza sortzen da.**

Hori da. Duela bi aste despeditzen eta jendea penaz. Harremana sortzen da, nahiz eta ez ezagutu. Batzuk ez ditut ezagutzen, telefonoz hitz egiten genuelako. Hitz egiten harreman polita sortzen da.

**Herriko dendan bereizgarria da beti egoten zela libreta edo koaderno bat zeinetan apuntatzen zen erosi eta zorretan utzitakoa. Halakorik izan duzu?**

Bai, jendeak batzuetan dirua etxean ahaztu eta... Baina ez dago inongo arazorik, zeren hurrengo egunean, jendea etortzen zenean pagatzen zuen. Jendea horretarako oso txintxoia izan da, eta ordaintzen zuen. Gogoratzendut denda berritu genuenean, nire amaren garaiko libreta opatu genuela, jendeak oraindik ordaindu gabeak zituen. Garai hartan pezetetan eta zentimoetan zen. Nirekin jendea oso txintxo izan da, eta jendearekin oso pozik nago.

**Pezetak aipatu dituzula, nola moldatu zinen euroaren aldatetara?**

Gogorra izan zen hasieran. Okerrena pezetekin eta euroekin batera egon ginen hilabeteak izan ziren. Erokeria izan zen. Azkenean, pixkanaka-pixkanaka, jendea ere ohitu zen. eta ni baita, baina kostatu zitzaidan hasieran, bi monetekin. Batzuk pezetak ekartzen zituzten, besteek euroak. Buelatzeko zer nahi zuen galdetu... Nik eurotan pentsatzen dut. Baldin bada pisu bat erosteko, horretarako, bai, pezetak, baina eguneroko gauzetarako nik pezetak ahaztuta dut.

**353 biztanleko herri batean denda bat errentagarria da?**

Garai batean bai, jende gehiago etortzen zelako. Aldatu dira gauzak, normala da hori, aldaketa. Jende gazteak beste pentsaera bat du, beste... Oso zaila orain denda. Gehien bat pertsona bakar batek eramatea, ezinezkoa. Behar bada familia bat, jendea txandakatzeko. Baina, bestela, gaur egun oso zaila da. Gauzak ez dira lehen bezala: Internet...

**Estanko baimena noiztik du?**

Betidanik. Baina orain estankoa asko jaitzi da. Jendeak ia ez du

erretzen, jendeak onartu du ez dela ona. Oztopoak jarri dituzte: ezin duzu tabernetan erre, kanpora atera behar duzu. Orokorrean, asko jaitzi da. Beste estankoetakoek berdina esaten dute.

**Garai batean kontrabandoko tabakoa ere ibili zen.**

Gogoratzen dut, bai. Aitaren garaian izan zen. Jendea nola ibiltzen zen entzun nuen txikitan. Nire garaian hori jaitzi zen.

**Estankoan posta zerbitzuko zigiluak ere saltzen ziren, ezta?**

Uff. Jendea etortzen denean batzuk ez dakite ezta zigiluaren prezioa ere. Azken bost urteetan, egia esan, oso gutxi saldu ditut. Eskutitzak bidaltzeko zigiluak behar dituzten autonomo batzuk besterik ez dira etorri. Gaintzeko jendeak hori ahaztuta du. Nik gabonetan saltzen nituen, postal pila bat saltzen nituen. Azken urteetan inork ez ditu erosi. Hori desagertu da. Jendea, gazteak, Whatsapparen bidez aritzen da. Normala da.

**Kostatu zaizu denda ixteko erabakia hartzea?**

Ez. Pandemia garaian pentsatzen hasi nintzen. Dagoeneko nekata. Nire adinarekin ixtea erabaki nuen. Jendeak alokatzeko eskatu zidan, baina nik ez dut nahi. Nire asmoa da obra egin eta txoko bat egitea, familiarekin elkartzeko. Gainera, nire etxea da. Nahiago dut nire etxean lasai egon.

**Eta jendeak zer esan dizu?**

Azken egunetan jendea penaz. Ulertzen dute nik nire bizitza behar dudala. Pena bi aldeetatik, baina bizitza horrela da. Onartu dute.

**Nora joanen dira orain?**

Udalak bajera bat erosi zuen eta orain lanak egiten ari dira. Espero dugu aurki irekitzea. Jendea itxoiten dago. Ideia ona da, zeren herri txiki bat dendarik eta tabernarik gabe oso triste da. Nire erreleboa, ni pozik.

**Denda berria zabaldu nahi dute. Aholkuren bat?**

Oraindik obretan daudenez, ez dugu asko hitz egin. Uste dut egonen garela. Jendeak badaki non nagoen eta behar dutenean hemen egonen naiz laguntzeko. Orain gauzak aldatu dira, eta desberdina da guztia, baina zer edo zer behar badute...

**Dendak otsailaren 28an itxi zituen ateak. Baina denda bat ixtea ez da horren erraza, ezta?**

Ez da, ez. Hau bigarren astea da eta gauzak jasotzen, garbitzen egon gara. Erokeria. Nik ere ez nuen pentsatzen denda batean hainbeste gauza zegoenik. Etxe handia, denda handia, eta toki asko gauzak gordetzeko, azkenean, errefusara botatzeko, baina, beno. Eta paperak. Fakturak, goian pila bat daukat. Egunen batean su emanen diet, eta denarekin bukatuko dut.

**Jubilatura, zein asmo dituzu orain?**

Betidanik bidaiatzea gustatu zait. Beraz, bidaiatu. Mendira joatea ere gustatzen zait. Asko ibiltzen naiz mendian. Fisikoki ongi baldin banago, gustatuko litzaidake trekking egitea. Gustatuko litzaidake Himalayan egitea, oso lasai. Ongi baldin banago, orain bidaiatzen hastea espero dut.

**"AZKEN EGUNETAN JENDEA PENAZ. ULERTZEN DUTE NIK NIRE BIZITZA BEHAR DUDALA"**



Kontxi bakaikuarrak bera omentzeko eman zioten lore sortaren ondoan.

**"KOOPERATIBA ABANTAILA HANDIA DA, BESTELA PREZIOEKIN LEHIATZEA EZINEZKOA DA"**





ASTEKOA

RAF ATXURI

## Sua ari du Ukrainan

Lehendik ere ari zuen, ordea. Inozo batzuek uste izan genuen delako Gerra Hotza amaitu zela Berlin barruko harresiaren birrintzearekin, eta 1990etik aitzina nazioarteko harremanetan dena izanen zela elkar ulertzera bide, oro bake egonkor baten bilaketa luze bat.

Ahaztuxea genuen giza historiaren bideek (orain artean behinik behin) lehenago edo geroago gerra txiki nahiz handietara eramaten gaituztela, eta maiz gerra baten ondoreneko ituna hurrengo gerraren txingar estalia dela. Ahaztuxea genituen Balkanetakoa 90koetan, Yemen, Irak, Libia, Siria, Palestina, Osetia edo Mendebaldeko Sahara. Ahaztuxea Donbasseko gudua ere.

"Gerrara ohitu zintezke, gerra egon badago" zioen kantak eta aste hauetan hirugarren munduko gerraren atarian egon gaitzkeela entzun dugu; baiki, bertatik bertara dugunak ez du itxura onik eta oso agerian utzi du azken hamarkadetako oreka zeinen ahula eta hauskorra zen.

Bada Kremlin aldean gizon bat handinahi, hotz eta anker bat (baina zuhurtzat genuena) bere herriaren nahiaren eta beharren gainetik, iragan inperiala berpiztu nahi duena, XIX. mendeko

## GIZA HISTORIAREN BIDEK LEHENAGO EDO GEROAGO GERRA TXIKI NAHIZ HANDIETARA ERAMATEN GAITUZTE

tsarrak eredu. Horretarako badu prest munduko armadarik handienetako bat, badu gas, gasolio eta labore nahikorik, eta agrario historiko zenbait ere kolkoan baditu.

2014az geroztik ez da giro Ukrainan: Maidanekoa, Krimeako auzia, Donbasseko

gudua, europarziale vs. errusiarziale dikotomia... NATOk eta Mendebalde aberatsak ez dute aurreko urteetan taxuzko saiirik burutu tentsioa baretzeko, areago, txingar baten bat hauspotu dute NATOren eremua gehiago zabaltzeko eskaintzekin. Eta horra, ustez lo zegoen errusiar hartza amets gaizto betean itzarri eta amorriz eta atzaparkadaz ekin dio erasoari, seguruenez urtetan ongi pentsaturiko estrategia bati jarraikiz, gobernu ustel eta zital baten aginduz.

Bitartean ukrainar herria oinazez eta saminez iragaten ari da bonba-hotsen artean historiako bihurtune odoltsu hau eta Errusian protesten ondorioz milaka herritar atxilotu horiek arintzen dute herri inbaditzailearen isiltasun mixerablea.

Arma industria eta militarismoarentzat urte oparoak bide datoz, bakea eta kooperazioa lantzeko garaiak, ordea, itxoin beharko du.

Elkartasun mezua bihoa hemendik herri ukrainarrarentzat eta errusiar matxinoarentzat.

Gerrarik ez, ez Ukrainan, ez Saharan, Palestinan, Yemenen edo Armenian ere ez.

## GUTUNA

### Urtea pasa da. Hemen gaudek, eta hemen hago

**MIKEL OSINAGA, FLOREN BERAZA, GAIZKA UHARTE, GORKA OVEJERO, OLATZ ANDUEZA, AIORA BARANDIARAN, AMAIA ERDOZIA, XABI MUNDIÑANO, LANDER URRIZA, EKAITZ GABIRONDO, ALEX LOPEZ DE GOIKOETXEA, GIORGIO ARIAS, TXARO OTXANDORENA, OLATZ IRIZAR ETA MIKEL MUNDIÑANO**

SAKANAKO SARE

Presoen korapiloa askatzeko azken txanpa, edo azken aurrekoa, edo...

Bidean gaude eta ez dugu amore emango denak etxeratu arte!

Somatu dugu bere falta, nola ez dugu ba somatuko! Urtea pasa da eta oraindik malkoak lehertzen ez badira ere, irribarra nagusitzen hasi da Fran oroitzen dugunean. Hola behar da!

Bizitza honek eman bezainbeste kentzen digu askotan. Behin kenduta, kendutakoaz jabetuta egiten dugu atzera eta lehen lerroan jartzen ditugu konpartitutako uneak, momentuak, bizipenak...

Franen oroimenak denboran bizi irauteko denak dira zilegi.

Ez gara luzatuko. Ezagutu genuenok gordeko dugu bere memoria. Gordeko ditugu berarekin bizitako uneak, kontuak eta borrokak. Aurrera egiten lagunduko digute, bidea egiten jarraitzeko.

Berak nahiko lukeen bezala, irribarre errebelde eta maitekor batekin gogoratu nahi dugu hainbeste eman digun lagun eta kidea. Urtea pasa da, baina hark emandako guztiak gudan jarraitzen du... eta ezta gutxi Fran Baldak eman diguna!

Urtea pasa da. Hemen gaudek eta hemen hago...

### Nafarroako Gizakia Helburun emakume zaintzaileak bistaratuz

**ANDREA CARRILLO JUANBELTZ**

ALDATUKO PSIKOLOGOA

Azken urteotan Gizakia Helburuk genero ikuspegitik planteamendu baten aldeko apustua egin du. Hori dela eta, tratamendua jasotzen duten emakumei zuzendutako ibilbidea diseinatu dugu, gure langileon genero ikuspegiko prestakuntzaren bidez eta gure programen egokitzapenaren bitartez. Hala ere, kontuan izan behar dugu tratamendua jasotzen dutenak gehienbat gizonezkoak direla, baina hauek laguntzera hurbiltzen diren familiar gehienak, berriz, emakumeak. Horregatik gure zentroetan parte hartzen duten emakume zaintzaileak ikusarazi eta laguntza iturri nagusia direla aitortu nahi dugu, askotan zainketa honek emakumei eskatzen zaigun genero rola mantentzen baitu, tratamendurako funtzionala baita.

Beraz, gure asmoa emakume zaintzaileek aurkezten dituzten zailtasun eta beharrei aurre egiteko programa bat eskaintzea da, ez bakarrik laguntza eredu gisa, baita emakume gisa ere. Programa honek hainbat helburu zehatz biltzen ditu, emakume zaintzaileen autoeraginkortasuna ahalduntze tresna moduan. Genero ikuspegitik gizarte egiturak emakumeon osasunean nola eragiten duen uler daiteke. Historikoki emakumei eraikitako kokapenak gure ondoezan duen eragina ulertarazten saiatu eta gure osasuna eta ongizatean eragiten duten faktoreetan parte hartzeko aukera eskaintzen dugu.

Proposamen honen bidez, Nafarroako Gizakia Helburuk bere familia esku hartzeetan genero ikuspegia txertatzeari ekin dio, orain arte antzemandako beharri erantzuna emanez. Helburu bezala, emakume zaintzaileei dagokienez, familia artekoen harremanak genero ikuspegitik ulertuz tratamenduen emaitzak hobetu nahi ditugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu, beraz, zaintzaren eta hori bera gauzatzen duten emakumeen balioa areagotzea. Era berean gure auto-zainketari garrantzia eman nahi diogu, hau erraztuz eta normalizatuz.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**GK diseinu zerbitzua:**

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

**Administrazioa:**

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Zuzentzailea:**

Maider Gabirondo Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**

Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketzailea:**

lune Trecet Obeso  
[maketzailea@guaixe.eus](mailto:maketzailea@guaixe.eus)

**Publizitatea:**

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernu**

# Langileen asteburuko itxiaidiak haur eskoletan

Haur eskoletan lan egiten duten hezitzaileek asteburua haur eskoletan pasako dute, itxita. Protesta horren bidez, besteak beste, lan baldintza duinak, gobernuaren finantzaketa egokia eta zikloa ez zatitzea exijituko diote Nafarroako Gobernuari

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU

Nafarroako 0-3 plataformatik diotenez, urtetan lan baldintza "kaxkarregiak" izan dituzte, hezitzaile bakoitzeko ume ratioa "gehiegizkoa eta arriskutsua" da eta gobernuaren haur eskolen finantzaketa "eskasaren" ondorioz udal askok ekonomia zailtasunak dituztela nabarmendu dute. Hezitzaileek maiatzetik aurrera greba mugagabea egitea ez dute baztertzen.

Hezkuntza Departamentuari eskatu diote hezitzaileak bikoiztea ratioak txikitzeko. Horrekin batera, finantzaketa moduluetan zenbait kontzeptu egokitzea ere: langileen antzintasuna, ordezkapenak, KPIaren igoera eta udalen gastu erreala kontuan hartzea... Kexu dira "gobernuak ahalbidetu baitu herri batzuetan haur eskolak doakoak izatea eta besteetan ez".

Departamentuaren Haur Hezkuntzako curriculumari buruzko Dekretuaren zirriborroa plataformako kideei ez zaie batera gustatu, "gutxiespena eta mespretxua nabaria da". Azaldu dutenez, "dekretuak dio Haur Hezkuntzako lehen zikloa ziklo osoa edo, gutxienez, ziklo horretako urte oso bat hartzen duten ikastetxeetan eskaini ahal izan dela. Eta hemen dago



Haur eskoletako hezitzaileek Iruñean auto karabana egin zutenekoa. UTZITAKOA

gakoa. Hezkuntza Departamentuak 0-3 zikloa zatituko du, sortu zaizkien beste gorabehera batzuei erantzuteko, eta ez haurren beharrei eta eskubideei erantzuteko". Zirriborroak, plataformako kideen iritziz, "atea zabalik uzten da bigarren zikloko ikastetxeetan bi urteko ikasgelak sortzeko, baina inork ez du aipatzen neurri horrek 0-3ko hezitzaileen lanpostuen galera ekarriko duela, kasualitatez, gurea sektore feminizatu, prekarioa eta baloratu gabea dela jakinda".

## Mobilizazioak

### Martxoak 11, ostirala

- 19:00 Bilkura, Altsasun.
- 21:00 Afaria udalekoekin.

### Martxoak 12, larunbata

- 12:00 Hamaiketako herritarrekin, Arbizun.
- 13:00 Bilkura, Arbizun.

### Martxoak 13, igandea

- 12:00 Bilkura, Lakuntzan.



## Hasi dira saihesbideko lanak

Construcciones Boreste SA eraikuntza enpresako langileak astelehenean hasi ziren Irurtzango saihesbideko lanak egiten. Enpresak bederatz hilabete ditu lanak egiteko eta haien truke 1.124.594,98 euro jasoko ditu. Lanengatik Aralar kalea moztuta dago eta trafikoa industrialdetik desbideratu da.

## Ihabarko Kontzeju etxea haur eta familiendako txokoa

Arakil ibarreko guraso batzuen ekimenez, *Familian jolas librea* dinamika martxan jarri nahi da martxoaren 14an, astelehenean. Ekimen hori Arakilen 0 eta 12 urte arteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago. Helburua litzateke astelehenero bi orduz elkartzeko, elkarrekin jolastea, familian elkarbanatzea eta arakildarren

artearen ehuntzeko txoko bat sortzea. Ekimenean interesa duten guraso arakildarrek 626 298 762 telefono zenbakira (Amaia) hots egin beharko dute.

Jolasa bulkatuko duen ekimenaren sustatzaileek azaldu dutenez, astelehenean jarriko litzateke hitzordua, 16:30etik 18:30era, Ihabarko kontzeju etxean. Guraso talde horrek Ihabarko Kontzejuaren eta Arakilgo Udalaren laguntza du ekimena aurrera ateratzeko.

## HEZITZAILEAK ASKO EGIN DEZAKE

Aisialdian euskararen erabilera sustatzeko baliabideak eta tresnak lantzeko tailerra

### Norendako?

Aisialdiko jardueretan haurrekin edo gazteekin lan egiten duten hezitzaileendako (gaztetxoko, kirola, Udan Euskaraz, udalekuak, jangeletako langileak...).

### Noiz?

Martxoaren 26an, 9:30etik 14:00etara (erdian ordu erdiko atsedenaldia).

### Non?

Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

EMAN IZENA EUSKARA ZERBITZUAN  
(948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus).

Mank  
s a k a n a





# Ukrainan gerrak kaltetuendako laguntza

Lakuntzako farmazia zaharrearan, 10:00etatik 12:00etara, eta udal pabilioian, 16:00etatik 20:00etara, eta Altsasuko DYAren egoitzan jasotzen ari dira materiala. Arbuzun joan zen astean egin zuten bilketa

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU

Lakuntzako elkartasun sareak Berehynia ukrainar elkartearekin eta Nafarroako ukrainar boluntarioen ahaleginarekin bat egin eta Europa ekialdeko herrialde hartan gerrak kaltetuendako laguntza biltzen ari dira. Bilketa behar bezala egiteko boluntario gehiago behar ditu sareak eta interesa duenak [lakuntzaelkartasunarea@gmail.com](mailto:lakuntzaelkartasunarea@gmail.com) e-posta helbidera idatzi dezake. Sareak ez du onartuko briketan eta beiran ontziratuta edari edo jakirik.

Lakuntzako elkartasun sareak jakinarazi duenez, besteak beste honakoak dira beharrezkoak: osasun arretako motxilak; gerriko poltsa moduko botikinak; erredurendako adabaki eta sendagaiak; sendagaiak; higie-ne kitak; metalezko ontziteria; lehen laguntzako sendagaiak; esterillak; linternak; mota guztietako energia sorgailuak eta batera kargagarriak; ur berogailuak; luzagarri elektrikoak eta kontsumitzeko prest dauden elikagaiak.

Bestalde, Nafarroako DYAk Ukrainara bidaltzeko material bilketaekin bat egin du, eta Altsasuko egoitzan jasoko dute hori. Hara laguntzarekin joan aurretik 669 774 993 telefonora hots egitea eskatu dute DYAkoe.



Nafarroako DYAk dagoeneko botikak bidali ditu Ukrainara. @DYANAVARRA

Elkartek osasun materiala, galtzen ez diren jakiak, oinarriko higie-ne materiala, babeserako elementuak eta elementu elektronikoak jasoko ditu. Dirua Altsasuko egoitzan eman edo 33614 zenbakira bizum bidezko bidalketa egin daiteke. Bestela, honako kontu korrontean sartu: ES72 3008 0092 1707 0369 9421. Informazio gehiago nahi duenak aipatu telefonora hots egin, [formacion@dyanavarra.com](mailto:formacion@dyanavarra.com) posta helbidera idatzi edo Nafarroako DYAren sare sozialen bidez jaso dezake.

Azkenik, Iruñean jatekoak, arropa eta osasun materiala biltzen ari zirela jakitun, Arbuzun bilketa harekin bat egin eta herrian bertan material horiek biltzen hasi ziren. Joan den astearte eta larunbata bitartean egin zen bilketa Lonbren dendan. Arbuzuarrez aparte, ekarpina egin zuten lakuntzar eta etxarriar batzuek. Jasotako guztiarekin furgoneta bat "goraino" bete eta Iruñera eraman zuten larunbatean. Premia badago, Arbuzun beste bilketa bat egitea ez dute baztertzen.

## Olatzagutiko porlandegiak ez du ekoizpena etengo

Enpresan jatorria ez duten informazioek aukera hori zabaldu zuten. Argindarraren kostuagatik omen zen

OLATZAGUTIA

Atzo goizean zabalduetako albisteen arabera Cementos Portland Valderrivas enpresaren estatuko sei porlandegiak bere jarduna eten egin behar zuten. Errusiak Ukraina inbaditu eta gerra piztu

ondoren, argindarraren kostu asko handitu da eta zabalduetako albisteen arabera arrazoi horregatik etengo litzateke enpresetako jarduna.

Olatzagutiko porlandegiko zuzendaritza eta enpresa batzor-

dea lan hitzarmenaz hizketatzeko elkartu ziren atzo goizean. Enpresa batzordean gehiengo duen ELA sindikatutik jakinarazi dutenez, oraindik ez diete halakorik proposatu. Dagoen eskaintzaren eta energia kostuaren arabera hartuko du erabakia enpresak. Beraz, oraindik ez da enplegu erregulaziorik izanen. ELAk gaineratu duenez, "zabalduetako informazioa ez da enpresatik atera". Olatzagutiko plantan ehun bat langilek lan egiten dute.



Herenegungo antzerkiforuma. INSTITUTUA

## Institutuko ikasleak Memoria duten Eskolara

Sortzez Lizarrakoa zen emakumezko baten bizitza ezagutuko dute antzezlan baten bidez

SAKANA

Nafarroako Memoriaren Institutuaren *Memoria duten Eskolak* programa 2016an sortu zen hezkuntzaren eta memoriaren politika publikoen elkargune bihurtzeko. Haren ikasturteko berrikuntzak errepresio frankistari buruzko antzerki ziklo bat eta unitate didaktiko bat dira. *Memoria duen Antzerkia* zikloa gaur goizean Altsasuko Iortia kultur gunera iritsiko da. Altsasu institutuko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleak joanen dira antzezlan ikustera, eta haren bidez Nafarroan 1936ko estatu kolpearen ondorioz bizi izan zen beldurrezko iragana ezagutzera. Lizarraldeko La Nave antzerki taldearen *Goiena Arraiza*, *Emilia* antzezlan ikusiko dute.

Goiena Nafarroan familiaren planifikatze prozesuen ingurua idatzi zuen aurreko emakumea izan zen, baita emakumezkoie egokitzen zitzaizen ugalketaren rol bakar horren kontrako matxinadaz idazten lehena ere. Estatu kolpeko biktima, ganbara batean ezkatututa bizi izan zen bost hilabetez, ama, aita eta anaia bakarra fusilatu eta ezponda batean bota zituzten bitartean. Argentinan erbesteratua, 103 urte zituela hil zen.

## Merkealdiaren azken errematea Altsasuko kaleetan

Atzo hasi eta bihar arte, Altsasuko Dendarien Elkarteko (ADE) dendek bere salgaiak kalera, dendan parera aterako dituzte. Horrela despedituko dute neguko denboraldi merkealdia, produktu guztiak beherapen handiekin eskainiz. Izan ere, Stock Azoka Burunda frontoian egiteko ezintasunaren ondoren, duela bi urtetik hona, ADEko saltokiak batera antolatzen dira merkataritza ordutegian merkealdi denboraldi bakoitza bukatzeko eta udaberriko denboraldi berriari hasiera emateko.

Elkarteko kideen iritziz, jarduera horrek segida izanen du. "Lehenik eta behin, pandemiaren ondoren kalean egoteko normalizazioagatik eta, agian, 10 urte baino gehiagoren ondoren, erakargarritasuna galdu duten stock azoken higaduragatik". ADEk aurreratu du kalearen dinamizazioarekin eta herriko merkataritza bide publikotik dinamizatzearekin lotutako hainbat jarduera prestatu dituela aurrean.

## Maiza Martuteneko espetxera hurbildu dute

Etixerat erakundeak atzo jakinarazi zuenez, Jon Gurutz Maiza Artola etxarriarra Frantziako Lannemezaneako espetxetik (Euskal Herriatik 330 km-ra) Martuteneko espetxera hurbildu dute. Han daude ere Asier Karrera Arenzana eta Karlos Apestegia Jaka etxarriarrak. Frantzian hogeitau urteko zigorra betetzeko zortzi hilabete falta zaizkiola, legeak jasotzen duen bezala, berak eskatu du kondena bete arte Euskal Herrira ekartzea.

Maizak 71 urte ditu, 14 urte eta erdi daramatza kartzelan. Etxarriarra gaixotasun larriak dituzten euskal presoan zerrendan dago, honako gaitzak baititu: ikusmen zorroztasunaren galera (ezkerreko begiko erretina-askatzea berriki, eta eskuinekoa galera haurtzarotik), diabetes Mellitus-II, dislipemia, hipertentsioa eta fibrilazio aurikularra. Bere adina eta gaitzengatik Maizaren askatasuna aldarrikatzen duen dinamika lanean dago Etxarri 2019ko otsailetik.



**B**atuetan ahaztu egiten gara gure eguneroko errutinaren parte diren gauza sinpleek duten balioaz, eta, besteak beste, ziurtzat jotzen dugu elikadura eskuragarri eta askotariko bat izateko aukera, haren jatorria, nutrizio-balioa, ingurunean duen eragina edo haren ekoizpenak dakarren ahalegina eta kostua zalantzan jarri gabe.

Azken urteetan gogorarazi digute lanbide asko ezinbestekoak direla gure bizi-mailari eutsi ahal izateko, lehen sektorekoak esaterako. Profesional horiei esker jaten dugu egunero; eta, hala ere, gizarteak ez du balioan jartzen pertsona horien dedikazio eta egiten duten ahalegina guk elikagai aberats eta osasungarriak izan ditzagun.

Cederna Garalur Elkarteak, lehen sektoreari laguntzeko eta balioa emateko helburuarekin, Nafarroako Gobernua eta Europako LGENF funtsek finantzaturako proiektu bat abiarazi du 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren barruan.

Proiektuak bi ekintza-ildo nagusi ditu. Batetik, tokiko produktuen erosketa bultzatzeko komunikazio-kampaina bat antolatzea. Eta bestetik, lehen sektoreko langileei zuzendutako ahalduntze-aholkularitza eskaintzea, beren produktuen balioa eta landa-ingurunean duten eragina eraginkortasunez komunikatzen ikas dezaten.

#### Bertakoa sustapenerako giltzarri

Zer egin genezake hainbeste ematen digun sektoreari gure babesia adierazteko?

Gure herrietan tokiko produktuak kontsumitzen has gaitezke. Horretarako, Cederna Garalurrek identifikazio-marka esanguratsu bat sortu du, "Etxean etxekoa/En casa lo de casa" lelopean tokiko produktuak denda eta tabernetan bilatzera eta erostera gonbidatzen gaituena. Gure etxearen parte izaten jarrai dezaten. Etxean etxekoa izaten jarrai dezagun.

#### Ahalduntze-aholkularitza

Lehen sektorean lan egiten dutenei zuzendutako doako aholkularitza-saioak eskainiko dira, komunikazio-estrategia bat garatzeko asmoz. Komunikazio-estrategia horren bitartez, produktuen balioa ez ezik, lehen sektoreko lanaren garrantzia ere helarazi nahi zaio gizarteari, lan duina, profesionalizatua eta gure herrietako bizitzaren dinamizatzailea balta.

## Errebalorizazioa, lehen sektoreko langileak bultzatzeko metodo gisa



Ezagutu gure lehen sektorea.

**Ezagutu itzazu gure tokiko produktuak.**









Lizarragabangoan bilkuraren ondoren elkartera joan ziren. UTZITAKOIA



Bakaikuarrek emakumezkoen eskubideen alde elkartuta. UTZITAKOIA



Urdirarrek kontzentrazioa eta herrian barnako buelta egin zuten. UTZITAKOIA

lista eraikitzea da, guztiok bizi baldintza berak izanen ditugun eta aberastasunaren fruituak denon eskura izanen diren errealitatea". Horretarako, "komunismoaren eraikuntza helburu duen antolakuntza politikoa gorpuztu" nahi dute, "zapalkuntza guztien kontra borrokatuz eta antolatuz". Gizarte kapitalistan "emakume langileok esplotatuak eta zapalduak" daudela nabarmendu zuten. Itaiako kideen iritziz, "instituzioak burgesiaren menpekoak dira eta argi dago oligarkiak ez duela berdintasuna sustatzeko inongo interesik". Antolamendutik gaineratu zuten, "ezkerreko alderdien proposamen feministek guztiok eskubide berak izatea eta aberastasunaren birbanaketa eskatzen dute, baina horren guztiaren atzean emakume langileak askatzeko ezintasuna dago". Itaiako kideek uste dutenez, "beraien diru mailerik gabe gutxi egin dezakete ezkerreko alderdiek ogi apurrak kudeatzeaz harago; gainera, burgesia bera zilegitzen dute. Politika horiek lortu dutena klase altuko emakumea askatzea izan da".

Itaiakoek ziurtatu zuten, "krisi kapitalistan murgildurik, eta pandemiaren testuinguruan, langileriaren bizi eta lan baldintzen okertzea nabarmena izan da, ondorio larrienetarikoak emakumezko langileok jasaten ari garelarik". Gaineratu zuten, "proletargoaren bizi ereduaren eraldaketa bizi baldintzen kasatzeari atxikituta doa, burgesiaren errealitatea ulertzeko modua inposatzen baitigu". Horri lotuta, "hipersexualizazioak emakumezkoen zapalkuntza indartzen" duela gaineratu zuten, eta ondorio "lazarriak" dituela gaineratu zuten.

## Sakana bidezkoagoa

Etzarriko Udalak deituta 70 bat pertsona elkartu ziren plazan. Silvia Marañon Chasco alkateak nabarmendu zuenez, "pandemiak lehen-go krisiak areagotu besterik ez ditu egin eta bereziki gogorra da prekarietatean eta eskubide urraketan murgilduta bizi direnendako". Feministaren esanak bere egin zituen: "izaki zaurgarriak eta oso mendekoak gara: naturarekiko eta elkarren mendekoak, gure gorputzak bizitza osoan zaindu behar direlako. Eta ondo dakigunez, patriarkatuak nahitaz esleitu dizkie emakumei bizitza zaintzeko lanak".

Horren aurrean, gizarte eragile eta erakundeen arteko elkarlana ezinbesteko jo zuen, "proposamenak eta aldarrikapenak jaso, eta topaketa eta elkarrizketa guneak bultzatu eta indartu behar ditugu, arlo publikoan eta komunitarioan erantzun egokiak emateko egungo erronka handiei", esan zuen alkateak. Gaineratu zuenez, "burujabetza behar dugu denon artean erabakitzeke zer esan nahi duen bizitzaren zaintzak gure herriarentzat eta nola antolatu nahi dugun". Horrekin guztiarekin "bat datozen ekintzak, baliabideak eta aurrekontuak behar dira". gaineratu zuen Marañonek. "Eraginkor" izateko, aurrekontuen "orientazioa eta ikuspegia iraultzea" beharrezko jo zuen alkateak.

## Kontziliaziotik zaintzara

Altsasuko Udalarendako zaintza da "gure ongizate fisiko eta emozionalerako ezinbestekoak diren zeregin batzuk egitea, ordainpekoak izan ala ez. Gizakiok berezko dugu zainduak izateko beharra; pertsona guztiok behar ditugu zaintza lanak bizitzako hainbat unetan, intentsitate desberdinetan". Horregatik hiru konpromiso onartu ditu. Batetik, Altsasun zaintzaren inguruko ikuspegi aldaketak sustatzen dituzten politika publikoak bultzatzea emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aurrera egiteko". Bestetik, "ikusarazi eta balioestea bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetzen duten zaintza-lanak, eta azpimarratzea sexuaren arabera lan-banaketa indartzen duten rolen eta estereotipoen eraldaketa". Eta, azkenik, "aitortzea mugimendu feministak arlo honetan egindako ekarpenak eta lana". Azaldu dutenez, "orain arte, zaintzari kontziliazio politiken bidez heldu zaie" baina "ez diote erantzun integralik eta benetako irtenbiderik eman". Horregatik, kontziliazioaren ikuspegitik zaintzari buruzko lanera pasatuko da. Horrela, "erantzukidetasun soziala gizarte antolamenduen funtsezko ardatz izanen duen eredu baterantz jo" nahi du, "zaintza lanak erdigunean kokatzeko, esparru publikoan".

**BiL TOKI**  
TABERNA • JATETKA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:  
948 562 348 • Altsasu

**PORTUKO**

Altsasu: 948 563 822 (denda)  
948 467 153 (lantegia)  
Etxarri Aranatz: 948 460 988

**PINCEL**

**ESKERTZA**

Garai bateko San Juan kaleko arte ederren dendatik eta Isasia poligonoko dendatik pasazareten Sakandar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Beste ibilbide bat hastera goaz.



## KOLABORAZIOA

**"Eduki" aditza Sakanako hizkeretan**

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Lehengo batean, Euskadi Irratia aditzen ari nintzela, kamioilari bati egin zioten elkarrizketa eta euskaraz hitz egiteko moduagatik, Etxarri Aranazkoa izan zitekeela iruditu zitzaidan. Asteburuan, lagun taldean eginiko *talka-terapia* saioetako batean, komentatu nuen eta ea zertan antzeman nuen etxarriarra izan zitekeela aipatu kamioizalea galdeturik, beste batzuen artean, *urai* aditza erabiltzen zuela erantzun nuen: *urai diau* (eduki dugu), *uraitzen det* (edukitzen dut)... Eta jarraian erantsi nuen Sakana guztian Etxarri Aranatzen soilik erabiltzen dugula eduki aditza aldaera horrekin, egia bada ere bilakabide desberdinak direla medio, oso antzekoak direla beste herrietan baliatzen direnak, jatorri bera baita horiena guztiena, "eduki" forma estandarra.

Ezin izan ditut Sakanako herri guztietako hizkeren aldaerak jaso, horietako batzuek, Ziordiak mendebaldeko muturrean eta Arakilgo herrietako ugari ekialdekoan, horren testigantzarik ez digutelako

utzi, edo utzi badute ere ez dira haiek nire eskuetara iritsi.

Hala ere, Sakanako hizkeren "polifonia" dastatzeko erakusleho eder eta zabala da jarraian aurkeztuko dudana. Hamabost modu ezberdinetan erabili izan da horren erabilia den "eduki" aditza Sakanako euskal hizkeretan XX. mendean zehar eta, egun oraindik, horietako asko erabiltzen ditugu bertako hizkera bizirik mantentzen dugun hiztunok.

Eta hamabost modu horietako bi ez beste guztiak, esan daiteke euskara estandarrean, batuan, erabiltzen den formatik eratorriak direla. Bi dira orduan jatorriko aditzetik ez datozenak eta horietako bakoitzak beste aditz bat baliatzen du ohikoa duen beste esanahiarekin partekatuz "eduki" estandarrena, huraxe aditz polisemikoa (adiera bat baino gehiago duena) bihurturik:

**Urdiain, Iturmendi, Bakaiku:** Burunda ekialdeko hiru herrietan, "eduki" aditzaren esanahia adierazteko, *ibili* erabiltzen dute era perifrastikoan (aditz laguntzailea behar duenean).

*Nik ibil dot covid!* (Nik eduki dut covid!) (Urdiain).

**Lizarraga:** Ergoienako herrian *ion* (egon) baliatzen dute: *Ze ion bi oo!* (Zer eduki behar du!).

Beste hamahiru kasuetan, orduan, "eduki" daukate jatorrian, baina horietan ere bilakabide ezberdinak izan dituzte, XX. mendean gutxienez, baliatzen zuten formara iristeko eta hona jarraian mendebaldetik ekialdera hamahiru aldaera horien guztien bilakabideetako urratsak:

• **Olazti:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> idugi ><sup>3</sup> irugi ><sup>4</sup> *iguri*

<sup>1</sup> -ki/-gi aditz partizipioetako morfema txandaketa.

<sup>2</sup> Hasierako /e/ bokalaren itxiera.

<sup>3</sup> d/r kontsonante txandaketa edo alternantzia.

<sup>4</sup> Metatesia edo (/g/ eta /r/) kontsonanteen leku aldaketa.

• **Altsasu:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> udegi ><sup>3</sup> uregi ><sup>4</sup> *urei*

<sup>1</sup> -ki/-gi aditz partizipioetako morfema txandaketa.

<sup>2</sup> Metatesia edo (/u/ eta /e/) bokalen leku aldaketa.

<sup>3</sup> d/r kontsonante txandaketa edo alternantzia.

<sup>4</sup> Bokal arteko /g/ kontsonante herskariaren erortzea.

• **Etxarri Aranatz:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> udegi ><sup>3</sup> uregi ><sup>4</sup> urei ><sup>5</sup> *urai* (><sup>6</sup> *uraittu*)

Altsasuko bilakabide berberari azken urrats bat edo bi gehituz (bi modutara erabiltzen baita):

<sup>5</sup> /ei/ > /ai/ diptongo bigarrenkariaren (jatorrian diptongoa ez dena) irekiera.

Horrela ere: ireki > iregi > irei > *irai*; azeri > axeri > axei > *axai*; \*neri (niri) > nei > *nai*...  
<sup>6</sup> -tu partizipioetako morfema erantsi.

• **Arbizu:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> idugi ><sup>3</sup> irugi ><sup>4</sup> *irui*

Olaztin bezala lehen hiru urratsak eta:

<sup>4</sup> Bokal arteko /g/ kontsonante herskari ahostunaren erortzea.

• **Unanu:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> idugi ><sup>3</sup> *idui*

Olaztiren modura lehen bi urratsetan eta hirugarrenean bokal arteko /g/ kontsonante herskariaren erortzearekin.

• **Dorrao:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> udegi ><sup>3</sup> uregi ><sup>4</sup> urei ><sup>5</sup> urii ><sup>6</sup> uii ><sup>7</sup> *uittu*

Altsasuko bilakabideari beste hiru urrats gehiturik.

<sup>5</sup> V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub>V<sub>2</sub> Bigarren bokalak aurrekoa asimilaturik: /ei/ > /ii/.

<sup>6</sup> Bokal arteko /r/ kontsonante dardarkariaren erortzea.

<sup>7</sup> -tu partizipioetako morfema erantsi.

• **Lakuntza:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> udegi ><sup>3</sup> uregi ><sup>4</sup> urei ><sup>5</sup> *urii*

Dorraako bilakabide berbera, baina bi urrats gutxiagorekin.

• **Arruazu:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> udegi ><sup>3</sup> udei ><sup>4</sup> *udii*

<sup>1</sup> -ki/-gi aditz partizipioetako morfema txandaketa.

<sup>2</sup> Metatesia edo (/u/ eta /e/) bokalen leku aldaketa.

<sup>3</sup> Bokal arteko /g/ kontsonante herskariaren erortzea.

<sup>4</sup> V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub>V<sub>2</sub> Bigarren bokalak aurrekoa asimilaturik: /ui/ > /ii/.

• **Uharte Arakil:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> *idugi*

Unanuko bilakabide berbera dauka, baina Ergoienako herrikoaren azken urratsik gabe.

• **Irañeta:** eduki ><sup>1</sup> edugi ><sup>2</sup> idugi ><sup>3</sup> idui ><sup>4</sup> idii ><sup>5</sup> *idiittu*

Uharteko bilakabideari beste hiru urrats gehiturik.

<sup>3</sup> Bokal arteko /g/ kontsonante herskariaren erortzea.

<sup>4</sup> V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub>V<sub>2</sub> Bigarren bokalak aurrekoa asimilaturik: /ui/ > /ii/.

<sup>5</sup> -tu partizipioetako morfema erantsi.

• **Ihabar:** eduki ><sup>1</sup> eruki ><sup>2</sup> *euki*

<sup>1</sup> d/r kontsonante txandaketa edo alternantzia.

<sup>2</sup> Bokal arteko /r/ kontsonante dardarkariaren erortzea.

• **Egiarreta:** eduki ><sup>1</sup> eruki ><sup>2</sup> euki ><sup>3</sup> *eukittu*

Ihabarren bezala lehen bi urratsetan eta hirugarrena erantsirik.

<sup>3</sup> -tu partizipioetako morfema erantsi.

• **Urritzola:** eduki ><sup>1</sup> iduki ><sup>2</sup> *iruki*

<sup>1</sup> Hasierako /e/ bokalaren itxiera.


<sup>2</sup> d/r kontsonante txandaketa edo alternantzia.

Amaitzeko, ondorio moduan, esan behar da hamahirutik bederatzik d/r txandaketa baliatu dutela bakoitzaren aldaerara iristeko eta horietako hiruk (Dorrao, Ihabar, Egiarreta) ez diotela ondoren kontsonante dardarkariari eutsi. Bi aldaerari (Olazti, Uharte) ez beste guztiei, bokal arteko /g/ kontsonantea erori zaie. Lau aldaerak soilik erantsi diote amaieran -tu morfema eta horietako batek, Etxarrikoak, aukeran gainera. Eta, azkenik, Arakil ekialdeko aldaerak ziren bakarrak amaierako morfeman kontsonante herskari ahoskabea, /k/, zerabiltenak.

## DUELA 25 URTE...

**Suak 25 hektarea erre zituen**

Martxoaren 13ko 15:00etan piztu zen sua. Hura itzaltzera Altsasuko suhiltzaileez aparte, Lizarra eta Iruñekoak ere etorri ziren. Sutea itzaltzeko lanetan helikopteroaren laguntza izan zuten. Ura igerilekutik hartu zuten. Altsasuko gazte ugari ere aritu zen sua itzaltzeko lanetan. Garrak Gurdilatze baserritik 15 metrora gelditu ziren. 20:30erako itzali zuten sua. Haren jatorriari buruzko bi hipotesi zeuden: nahita eragindakoa izatea edo tren baten txinpartak sortu izana.







Haurrak eskolatik atera eta etxera joaten Amaia eta Lizarra kaleen bidegurutzean. ARTXIBOA

# Egitasmoz beteta dago udal aurrekontua

Musika eskola eta auditorio berria egiteko proiektuaren erredakzioa, herri baratzak sortzea, parte hartzearekin eginen den mugikortasun plana, kiroldegian hirugarren instalakuntza fotovoltaikoa eta, gutxienez, 28 langileren kontratazioa

## Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Zerbitzuak mantendu, horiek emateko zuzeneko kontratazioari eutsi eta herriaren azpiegiturak hobetzeko asmoz onartu zituen aurrekontuak Irurtzungo Udalak, EH Bilduren aldeko botoekin eta UPNren abstentzioarekin. Urte batetik bestera 920.000 euro inguru hazi da Irurtzungo Udalaren aurrekontua: 2.910.000 eurokoa da. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, bi arrazoi daude aurrekontua hazteko. Batetik, Nafarroako Gobernuak udalen eta kontzejuen finantzazioa hobetu duela. "EH Bilduk Nafarroako Gobernuari eusten dioten taldeekin egindako lanketa baten ondorioa da hori". Bestetik, hegoaldean eginen den urbanizazioa, 750.280 euroko aurrekontua duena. Bi fasetan eginen da, hasteko 30 partzela eta ondoren bederati.

## Egitasmoak

Egungo udal azpiegiturak hobetu eta haien irisgarritasuna

hobetzeko, Irurtzungo Udalak musika eskola eta auditorio berria eraiki nahi ditu liburutegi ondoan. Izan ere, egungo kultur etxea txiki gelditzen zaie. "Eraikin bera liburutegiarekin sinbiosia egin eta dena bateratzea litzateke asmoa. Apirilean kultura kontseilariarekin bilera dugu lanak finantzatzeko aukerak aztertzeke", azaldu du alkateak. Proiektua idazteko 45.000 euro daude aurtengo aurrekontuan.

Udalak finantziarioa lortuz gero lanak 2023an eginen lituzke. Auditorioak 200 pertsonarendako espazioa luke. "Multifuntzionala eta zentzuzkoa den zerbait egin nahi dugu, gaur egungo jardueri erantzuna emanen diena", argitu du Larrazak. Eraikin berria jasoko balitz, gaur egungo kultur etxeko auditorioa emanaldi txikitarako, erakusketarako utziko luketela aurreratu du alkateak. "Musika eskola hustuko balitz, hainbat ideia daude, baina landu gabe ditugu".

Saihesbideak irurtzundarren mugikortasuna aldatuko du. "Lizarra kalea herriarena izatera pasako da. Herriarekin batera mugikortasun plan bat egin nahi dugu. Eztabaidatu daitekeen proposamen bat garagartzararako egin, uda ondoren parte hartze prozesua abiatu handik aurreproiektu bat ateratzeko. Ideia da prozesu hori herri kontsulta batekin bukatzea. Hura egiteko erabakia urte hasieran hartu edo hurrengo udalak hartuko luke". Plana egiteko 16.000 euro daude.

Aldi berean, interes handieneko herri guneak integratzeko erredakziorako 15.500 euro jaso dira. Alkateak argitu duenez, "hainbat udalek Nasuvinza en-

**3.700 M<sup>2</sup>-KO EREMUAN 90 ETA 100 M-KO 37 BARATZE SORTZEKO ASMOA DU UDALAK**

presarekin hitzarmena sinatu dugu eta laguntza eta aholkularitza emanen digu eraikinen zaharberritzearen arloan. Horrek dirulaguntza eta tramitazioak egiteko erraztasunak emanen ditu. Dagoeneko irurtzundar batzuekin bilera egin dugu, eta beste bat egitekotan gara".

Bestalde, alkateak jakinarazi du Barazkigunen 2015az geroztik dagoen karpa hilaren 21ean kenduko dutela. "Egun horretan edo 28an hasiko dira estalpea jartzeko lanak. Horiek San Martin kaleari eta handik Pikuplazara jaisten den pasabideari eraginen diote. Lanak festetarako despedituko dituzte", jakinarazi du alkateak. Lan horiek 276.500 euroko aurrekontua dute, udalaren diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko dira.

## Dirulaguntzen zain

Udalak kiroldegian hirugarren instalakuntza fotovoltaikoa jarri nahiko luke eta horretarako Europako Next Generation dirulaguntzetara aurkeztu da. "Handik sortutako 130 kV irurtzundarrendako lirateke. Ordenantza bidez arautuko genuke zeinek eskuratu lezakeen argindar hori, baina zati bat energia pobrezia duten etxeetarako litzateke eta beste bat interesa duten irurtzundarrendako litzateke", azaldu du Larrazak. Proiektua 130.000 euroko aurrekontua du. Bestetik, eskolako igogailua hobetzeko Hezkuntza Departamentuari laguntza eskaera egin dio udalak. 30.000 euro inguruko (BEZ barne) aurrekontua du lanak, eta finantzazioa lortuz gero udan eginen lirateke lanak.

## Baratzak

Igerilekura daraman porlanezko pasabidearen ezkerretan herri baratzak prestatuko ditu udalak. Herri baratzeekin hiru asmo bete nahi dituzte: "batetik, Arakilgo Udalaren bertako hazien proiektuarekin bat txertatzea. Bestetik, herrian sortutako konpostari erabilera emateko. Eta, azkenik, legez igerilekuetatik egunero askatu behar den ura ureztatzeko erabiltzeko", azaldu du Larrazak. "Baina baratzak egin aurretik proiektua herri-tartu nahi dugu, jendearekin ongi landu eta interesaren arabera erabakiko dugu. Hura ez baita izanen asteburuko txirigitoa izateko tokia. Lurra landu beharko da", zehaztu du Larrazak.

## Kontratazioa

Dagoeneko kale garbiketarako egiten bi pertsona daude eta "aurten lau edo bost hartuko ditugu". Zerbitzu anitzetarako lauzpabost langile kontratatuko ditu udalak. Igerilekua mantentzeaz eta sorospen lanak egiteaz arduratzeko zortzi langile ariko dira. Gaztetxokoan bi teknikari ari dira. Bestetik, Iturraskarri proiekturako sei pertsona hartuko dituzte. Babestutako Gizarte Enpleguarekin bi langile ariko dira udalarendako. Azken bietan "apika, langile gehiago izanen dira".

## Aniztasuna

"Herriko kultur aniztasunaren diagnosiaren bidez aniztasun hori nola bizi dugun jakin nahi dugu. Pertzepzio bat izan dezakegu eta errealtatea askoz konplexuagoa da. Diagnosiaren emaitzak kontuan izanda ekintzak eginen dira". Horretarako aurrekontuetan 5.500 euro daude.

## Inbertsioak

- **Kultur Kontseilua** 55.000 euro.
- **Kirol eta kultur laguntzak** 32.000 euro.
- **Hilerrian lanak** 20.000 euro.
- **Iturtxoko parkean lanak** 20.000 euro.
- **Inasari buruzko liburu eta dokumentala** 16.000 euro.
- **Atakondoa eskolan hobekuntzak** 15.000 euro.
- **Erosketa bonoak** 15.000 euro.
- **Garapenerako proiektuak** 10.973 euro.
- **Gizarte larrialdiko laguntzak** 7.500 euro.





HIRIBERRI ARAKIL - UTZITAKOA



ALTSASU



OLATZAGUTIA

# Mozorro urbanoenak

Ihoteei amaiera emanez, mozorro festak ospatu zituzten aurreko larunbatean Hiriberri Arakilen, Lizarragan, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Euriak ez zuen ongi pasatzeko gogoia zapuztu, eta denetariko pertsonaiak atera ziren kalera.



LIZARRAGA



LIZARRAGA



ALTSASU





OLATZAGUTIA



ALTSASU



LIZARRAGA



ALTSASU



OLATZAGUTIA



LIZARRAGA

22. <sup>ak</sup>korrika

# bertako

igogaluak | ascensorés

## EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA

<p><b>ARABA</b></p> <p>945 712 822</p>	<p><b>BIZKAIA</b></p> <p>946 523 935</p>
<p><b>GIPUZKOA</b></p> <p>943 903 450</p>	<p><b>NAFARROA</b></p> <p>848 870 917</p>

DEITU EDO BISITATU  
[www.bertoko.eus](http://www.bertoko.eus)



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 11

**ALTSASU** Gazte agenda:  
**Relatales: Relatos lésbicos en confinamiento** fanzinearen aurkezpena Dekumas eta Kattalingunereren esku.

Intxostiapunta gazte guneak antolatuta.  
18:00etan, Iortia kultur gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Etxarri Aranazko gaztetxearen eta Gazte Asanbladaren urteurren: **Jose Luis Erdoziaren Arañazeko historia** hitzaldia.  
18:00etan, gaztetxean.

**URDIAIN** Hitzaldia: **Emakumeon egoera, historiari esker ulertuz.** Hizlaria: **Nerea Oloron Vicay.**  
18:00etan, herrientxean.

**ALTSASU** Itxialdia Nafarroako Haur Eskoletan. **Elkarretaratzea.**  
Nafarroako 0-3 Plataformak deituta.  
19:00etan, udaletxearen aurrean.

**URDIAIN** Pintxo pote feminista.  
20:00etan, udaletxean.

**ALTSASU** Itxialdia Nafarroako Haur Eskoletan. **Afaria udal ordezkariek.**  
Nafarroako 0-3 Plataformak deituta.  
21:00etan, haur eskolan.

## LARUNBATA 12

**OLATZAGUTIA** Nafarroako

**Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketaren lehen jardunaldia.**  
10:00etan, Erburua kiroldegian.

**ARBIZU** Itxialdia Nafarroako Haur Eskoletan. **Hamaiketako erakusketa eta zapia jartzea familia eta herritarrekin.**  
Nafarroako 0-3 Plataformak deituta.  
12:00etan, haur eskolan.

**ALTSASU** Iskiza Sakana gimansia erritmikoko taldearen erakustaldia.  
12:15ean, Zelandi kiroldegian.

**ETXARREN** Arakilgo emakumearen eguna: **bazkaria, omenaldia bailarako emakume helduei eta Lorena Arangoaren bakarrizketa.**  
13:00etatik aurrera, Iratzar tabernan.

**ARBIZU** Itxialdia Nafarroako Haur Eskoletan. **Elkarretaratzea.**  
Nafarroako 0-3 Plataformak deituta.  
13:00etan, udaletxe aurrean.

**ARBIZU M8.** Trikipotea eta emakumeen bazkaria.  
Arbizuko Bilgune Feministak antolatuta.  
13:00etatik aurrera, plazan eta Alda Biden.

**ALTSASU** Gazte agenda: **Ping pong txapelketa.**  
18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

**OLATZAGUTIA** *De esto tambien se sale* Alazne Etxeberria

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

**Belfast** gaurlotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 11: 19:00  
Igandea 13: 19:30

**Coda** gaurlotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 17: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

**El sastr** filmaren emanaldia  
Igandea 13: 19:30

**Drive my car** zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 17: 19:00

antzerkigilearekin.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU A Panadaria** konpainiaren Elisa eta Marcela antzezlanak.  
19:30etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 13

**OLATZAGUTIA** Sakanako Mendizaleen irteera: **Alkiza – Ernio – Olatzagutia.**  
07:00etan, plazan.

**LAKUNTZA** Itxialdia Nafarroako Haur Eskoletan.  
Elkarretaratzea. Nafarroako 0-3 Plataformak deituta.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.

**IRURTZUN** Ilune antzerki taldearen **Con los ojos abiertos** antzezlanaren emanaldia.  
19:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU** **Euskal preso eta iheslariak** etxera elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 14

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.

**OLATZAGUTIA** **Ameli eta Xirrikitu**en jostunak ipuin kontaketa musikatua.  
16:30etan, ludotekan.

## ASTEARTEA 15

**ARBIZU** **Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan?**  
UEMAK eta Arbizuko Udalak antolatuta.  
18:00etan, udaletxeko aretoan.



**ZIORDIA Etxepare Saria** irabazi duten albumen azalen erakusketa. Nafarroako Gobernuak euskara zerbitzuek antolatuta.  
**Martxoaren 25era arte.**  
**Asteleheneetik ostiralera 14:00etatik 20:00etara.** Liburutegian.



**IRURTZUN** Irurtzungo pintura tailerreko parte hartzaileen lanen erakusketa.  
**Martxoaren 31ra arte.**  
**Pikubarnan eta Tahonan.**

## ESKELA

**Aritz Jauregi Albarracín**

(Txioka Haur Ikastolako haurra)

Ikastolako hariztiko hostoak orbel.  
Besarkada goxoa familiarendako

Txioka eta Iñigo Aritza Ikastolako familia, ikasle eta langileak

## OROIGARRIA



**Tomas Lezea Fernandez de G. y L.**

XXX. urteurrena  
(Altsasun, martxoaren 8an)

Beti gure bihotzetan

Ebekoak

## ZORION AGURRAK



**Xabier eta Iosu**  
Zorionak bikote!!! Urte askotarako. Besarkada bat familiaren partez



**Idoia**  
Zorionak Idoia!!  
Disfrutatu egunaz eta besarkada handi bat familiaren partez!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## SALGAI

**Pisua** bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean, interesatuek deitu 669 156 117 fnora.

## LEHIAKETA

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 15. lehiaketa: 6 urtetik gorakoei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo direlarik, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 3an amaizten da Miranda

de Argako Tudelana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo erdialde. [euskararenlagunak@gmail.com](mailto:euskararenlagunak@gmail.com) helbidean. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2022eko maiatzaren 28an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den "Euskararen eguna" ospakizunean. Irabazleei aldeaz aurretik abisatuko zaie.

## OHARRAK

**Konposta eskuragai:** Sakana-ko Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du

edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneako konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daiteke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da.

**Uharte Arakilgo Pausoka** haur eskolan aurrematikula: Martxoaren 1etik 15era, biak barne, aurrematikula egiteko aukera egonen da.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)



ESKELA

## Aritz Jauregi Albarracin



Beti maiteko zaitugu, polittena

**Aitabxo, amatxo eta familia guztia**

ESKELA

## Aritz Jauregi Albarracin

(2022ko martxoaren 3an hil zen)

Joan beharra etorri zaizu zeundela betetzear bi lurreen Aritz eder bat zinen orain zeruan ilargi aurrerantzean nola biderik ez dugun ikusten garbi zuri dizugun maitasun honek egingo ahal digu argi. Beti egongo zara gurekin

**Zure birraiton-birramonak, aiton-amonak, osaba-izebak eta lehengusuak**

ESKELA

## Aritz Jauregi Albarracin

(2022ko martxoaren 3an agur esan zigun, 21 hilabete zituela)

Poxpolintxo, gure bihotzetan egongo zara betiko.

**Garazi eta Gaizkaren Olaztiko kuadrila**

ESKELA

## Aritz Jauregi Albarracin



"Egizu hegan aske Aritz, egizu hegan zuhaixken gainetik"

**Itsaso, Irati eta Arantza**

OROIGARRIA

## Fran Balda Araña

I. urteurrena

Haiziai esanen ziyuau belarrira esateko hagon lekuben hagola ez haugula inoiz ahaztuko


**Itxekuek**

Arbizu, 2022ko martxoaren 13a

OROIGARRIA

## Gorka Larrea Ondarra

X. urteurrena



Bizitza eta duintasun lezioa emanez joan zinen, inoiz beteko ez den hutsa utziz. Beti maiteko zaitugu

Gorkaren lagunei beti eskertuko diegu maitatzea eta gogoratzea. Mila esker eta etzazuela inoiz ahaztu

**Ama, aita, Iker eta Erkuden**



IZARRA  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

## JAIOTZAK

- **Lierni Miranda Ganuza**, otsailaren 24an Etxarri Aranatzan
- **Nare Martil Etxeberria**, martxoaren 2an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## HERIOTZAK

- **Maria Martina Razkin Okiñena**, martxoaren 3an Arbizun
- **Aritz Jauregi Albarracin**, martxoaren 3an Olaztin
- **Restituta Goikoetxea Galarza**, martxoaren 5ean Urdiainen

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## 1. AUTONOMIKOA GIZON.

**2. FASEA. 9. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Lourdes - Lagun Artea **2-1**

## SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA  
1 Zaramonza **41**  
11 Lagun Artea **22**

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN  
**16:30** Lagun Artea - Fontellas (*Zelai Berni*)

## Lagun Arteak Fontellas hartuko du

Talde lakuntzarrak puntuak behar ditu jaitsiera postuetatik ateratzeko.

## 1. AUTONOMIKOA EMAK.

**2. FASEA. 3. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Cortes - Altsasu **Atzeratuta**

## SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA  
1 Mulier B **27**  
9 Altsasu **1**

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN  
**12:00** Altsasu - Idoia (*Dantzaleku*)

## Altsasuk Idoia aurkari

Altsasuk Oteizako taldea hartuko dute igande eguerdian Dantzalekun.

## FUTBOL PREFERENTEA

**23. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
San Miguel - Etxarri Aranatz **4-1**

## SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA  
1 Injerto **56**  
14 Etxarri Aranatz **20**

## HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN  
**16:30** Etxarri - San Andres (*San Donato*)

## Etxarrik Lizarrako San Andres arerio

Partida zaila du Etxarrik, baina puntuen faltan daudenez irabaztera aterako dira.

## FUTBOL ERREGIONALA

**21. JARDUNALDIKO EMAITZA**  
Doneztebe - Altsasu **1-2**

## SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA  
1 Aurrera **50**  
2 Altsasu **46**

## HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN  
**17:00** Altsasu - Beti Kozkor B (*Dantzaleku*)

## Altsasu, bigarren postuari eustera

Altsasuk Lekunberriko taldea hartuko du eta garaipenaren bidean jarraitu nahi du.

# Zabaleta hil ala bizi pilotaren katedralean

**PILOTA** Elezkano-Zabaleta eta Laso-Imaz elkarren kontra lehiatuko dira Astelenan, eta Binakakoan bizirik jarraitzea dute jokoan. Altuna-Martijak hanka eta erdia finalean izango lukete Iribarria-Rezusta Labriten menderatuko balituzte

## Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako finalerdietako ligaxkakako bigarren kanporaketa dago jokoan eta emozioa pil-pilean dago. Lehen jardunaldian galdu zuten bi bikoteek, Elezkano-Zabaletak eta Laso-Imazek, elkarren kontra jokatu beharko dute igandean Eibarko Astelenan. Hil ala biziko partida izango da, galtzen duen bikoak hanka erdia baino gehiago izango baitu Binakako txapelketatik kanpo.

## Astelena

Material aukeraketan Imazek Aspekoengan jarri zuen presio guztia. "Beraiek dira egungo txapelkunak eta txapelketa hasi zenetik, faborito argiak". Elezkanok, aldiz, "presioa guztien dako berbera" dela adierazi zuen. "Ez dugu presio gehiagorik egungo txapelkunak garelako. Igan-dekoa partida oso garrantzitsua da, eta gurean zentratuko gara" gaineratu zuen. Zabaletak aitortu zuen bere buruari "asko" eskatzen diola, eta Binakakoan orain arte jokatuak hamabost partidetatik soilik lauzpabost partidetan gelditu dela egindakoarekin gustura. "Partida askotan ez dut gozatu. Boladak izaten dira, baina konfiantza itzuliko da, konfiantza hori lantzen delako" argi utzi zuen.



Zabaletak partida zaila du etzi. UTZITAKOIA

## Labrit

Beste aldean daude larunbatean Labriten lehiatuko diren lehen jardunaldiko irabazleak, Altuna-Martija eta Iribarria-Rezusta. Irabazten duenak, kasu honetan, hanka erdia baino gehiago Binakako finalean izango du, eta saria gozoa da. Bi bikoteak une ezin hobean iritsi dira partida garrantzitsu honetara eta zuhurrak izan nahi dute. Labriten partida "oso gogorra" izango dela nabarmendu zuten, eta larunbateko partidaren "zentratuta" daudela.

## Bakaikoa Baikon 2025era arte

Joanes Bakaikoa eta Baiko Pilota enpresa akordioa iritsi dira eta etxarriarrak Bilboko enpresan jarraituko du beste hiru urtez, 2025eraino. "Akordioak kirol maila onean harrapatu nau eta oso pozik nago enpresan nigan erakutsitako konfiantzagatik. Konfiantza hau kantxan erakusten saiatuko naiz" azaldu du aurrelariak. Kontratu luzapenak Binakako Promozio finalerdietan bete betean dagoela harrapatu du. Ostiralean, Mallabian, Elizegirekin bikotea osatuta, Victor eta Gaskue dituzte aurkari hil ala biziko lehiak, Promozio mailan finalerdia kanporaketa zuzena baita. Bakaikoa eta Elizegi dira faboritoak, baina Victor eta Gaskue ere oso maila onean daude eta finalerdi oso estua aurrelariak dute.

## Aarón Arbizu, Aspeko pilotari berria

Beste pilotari sakandar bat gehitu da pilotari profesional sakan-darren zerrendara: Aarón Arbizu Alberto. Atzelari etxarriarrak bi urteko kontratua sinatu du Aspe enpresa eibartarrekin. "Asperen deia sekulako sorpresa izan da. Ez nuen espero. Urduri eta, aldi berean, oso pozik nago" azaldu du etxarriarrak. Oraindik ez daki noiz debutatuko duen.

## Iskizaren Gabonetako erakustaldia, asteburuan

## GIMNASIA ERRITMIKOA

Zelandik Iskiza Sakanaren erakustaldia hartuko du, larunbatean, 12:15ean

Pandemiak sortutako hamaika eragozpen zirela eta, Gabonetako erakustaldia atzeratzea erabaki zuen Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeak. Azkenean larunbatean, martxoaren 12an izanen da erakustaldia, Altsasuk Zelandi kiroldegian, 12:15ean hasita eta publikoarekin.

Erakustaldian Iskizako txapelketa taldeko eta eskolako gimnasta guztiek hartuko dute parte, eta Olaztiko eskolako taldea ere ariko da. Guztira 70 gimnasta inguru arituko dira. "Larunbateko erakustaldia txapelketa taldeko gimnastendako oso garrantzitsua izango da. Izan ere martxoaren 26an, Mendillorin, Nafarroako Kirol Jokoetako Banakako Gimnasia Erritmikoko lehenengo fasea jokatu da, eta bertan Iskizako 9 gimnastek hartuko dute parte. Horretaz gain, oinarrizko mailako taldekako Nafarroako Txapelketa jokatu da, eta bertan Iskizako oinarrizko jubenil taldea lehiatuko da, Espainiako Koparako sailkatzea jokoan duela. Beraz, larunbateko Altsasuk erakustaldia Mendillorin lehiatuko diren gimnastendako nerbioak arintzeko eta jendaurrean aritzeko oso aukera ona da" nabarmendu du Iskizako Olaia Agirre monitorea.

## Hiru Mendi Zerrak eta Sakanako Ibilaldia, atzera kontuan

**MENDI LASTERKETAK** Altsasukoa apirilaren 2an izango da –izena ematea zabalik dago–, eta Irurtzungoa 30ean

Aurten bai. Aurten Euskal Herriko eta Nafarroako Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuiturako puntuagarriak diren Sakanako bi mendi martxak –Hiru Mendi Zerrak, eta Sakanako Ibilaldia, Irurtzunen– aurrera aterako dira.

Apirilaren 2an Altsasuk Foru Plazatik abiatuko den Hiru Mendizerrak ibilaldi ez lehiakor-rako izena ematea zabalik dago Euskal Herriko Mendi Federazioaren Zirkuitua webgunean (15 euro), martxoaren 31ra arte.

Gehienez ere 700 partaide onartuko dira. Altsasuk Mendigoizaleek azaldu dutenez, martxaren egunean ez da izena emateko aukerarik izango. Mendizaleek bi ibilbideren artean aukeratu dezakete: Hiru Mendizerrak ibilaldi luzea (46 km eta 2.700 m desnibel +) edo Hiru Mendizerrak ibilaldi laburra (26 km, 1.200 metroko desnibel +).

Sakanako Ibilaldia mendi martxen zirkuituan proba betaranoenetakoa da eta apirilaren 30ean mendi martxa ez lehiako-

rraren 31. edizioa izanen da. Hiru ibilaldiren artean aukeratu daiteke: Sakanako Ibilaldi Luzea (54 km, 3.388 metroko desnibel +); Sakanako Ibilaldi Laburra (25,5 km, 1.440 metroko desnibel +) eta Ibilbide Txikia (14 km, 730 metroko desnibel +, haurrendako). Azken edizioan, 2019an, 1.416 mendizalek eman zuten izena eta antolakuntza kopuru horietarako eta zertxobait gehiagorako prest dago. Izena ematea aurki zabalduko da Zirkuitua eta Iratxo Elkartearen webguneetan.



# Burundak ilusioz ekin dio 45. denboraldiari

**TXIRRINDULARITZA** Aurten 49 txirrindulari trebatuko dira Quesos Albeniz-Burunda taldean. Oscar Guerrero presidenteak babesleen eta familien inplikazioa nabarmendu zuen "klubak guztiok egiten dugun lanagatik funtzionatzen duelako"

**Maidor Betelu Ganboa** ALTSASU  
Igandean Burunda Txirrindularitza Taldeak 2022 denboraldiko aurkezpena egin zuen Iortia Kultur Gunean. Talde argazkiei Oscar Guerrero presidenteak eta Gorka Mintegi idazkariak gidatutako ekitaldiak eman zion segida. Iñaki Lasa presidenteordeak, Ismael Perez diruzainak eta Jose Antonio Begiristain, Iker Flores, Pablo Urtasun eta Xabier Ramirez de Alda bokalek osatzen dute Burundako junta.

"Gure 45. denboraldia hasi berri dugu. Zorionez, urte hauetan ez dugu laguntza ekonomikorik falta izan. Babeslerik gabe gure taldea aurrera ateratzea ezinez-



Eskola mailako entrenatzaileen azalpenak, alboan Guerrero eta Mintegi dituztela.

koa litzateke, eta horregatik guztiok gure eskerrik beroenak ematen dizkiegu. Bakoitzak ahal duena ematen du eta guztien artean kluba aurrera ateratzen dugu" hasi zuen hitzaldia Guerrerok. Segidan, txirrindularien familiak izan zituen hizpide, Burunda "familia bat" delako. "Familia berriei, ongi etorri. Kirol honetaz gozatzea, taldean gustura egotea eta luzarorako izatea opa dizuegu. Aurretik gurekin zaudeten familiei, eskerrik asko. Entrenamenduak direla, lasterketetako bidegurutzeak direla... hor zaudete. Kirol honetan guztien inplikazioa ezinbestekoa da eta zuen dedikazioa eskertu nahi dugu" nabarmendu zuen presidenteak.

Eskola mailan Iker Floresek, Ismael Perezek eta Xabier Ramirez de Aldak egindako aldaketekin "oso pozik" daudela gaineratu zuen Guerrerok. "Eskolei beste aire bat eman diote". Eta kadeteetan eta jubeniletan Tomas Martinez beteranoak eta Eneko Vilarrek egiten duten lana eskertu zuten. "Beti dago hobetu daitekeen zerbait; iradokizunen bat baduzue, etorri lasai gugana.

Zuzendariak eta juntako kideak zuen proposamenak entzuteko prest gaude" argi utzi zuen presidenteak. "Guztiok egiten dugun lanagatik funtzionatzen du klubak, bestela, ezinezkoa litzateke" nabarmendu zuen.

## Baloreak sustatu

Familiei "konfiantza" eskatu zien Guerrerok, "txirrindularitzan trebatzeko eta txirrindularitzak sustatzen dituen lagunartekotasuna, errespetua, konpartitza eta halako baloreak ikasteko zuen seme-alabak esku oso onetan uzten dituzuelako. Taldekide batekin garaipen bat konpartitza eta halako baloreak guretako oso garrantzitsuak dira, eta filosofia horrekin jarraituko dugu. Lasterketetan ikusiko dugu elkar" agurtu zen presidentea.

Burundak zortzi lasterketa antolatuko ditu. Lau eskolen mailakoak dira -Ziordian, Olaztin, Altsasun eta Urdiainen, festetan-, hiru kadeteen mailakoak -apirilaren 9an Altsasun, uztailaren 5ean Urdiainen eta uztailaren 15ean Iturmendin- eta igandean, martxoak 13, Altsasuko jubenilen mailako lasterketa.



**Escolak (37): Promesak (5):** Simone Flores, Aiur Matias, Alain Anguiano, Annette Curiel eta Adur Arbizu. **Hasiberriak (4):** Javier Ramirez de Alda, Anai Mazkarian, Saioa Mejia eta Irati Agirre. **Kimuak (15):** Enara Perez, Aitor Piedra, Ekaitz Zufiaurre, Egoi Urtasun, Ezkai Lakunza, Markel Urteaga, Asier Galarza, Mikel Lizarraga, Patxi Azkarate, Unax Mazkarian, Daniel Curiel, Iker Agirre, Mikel Audikana, Hodei Audikana eta Eki Arbizu. **Haurrak (13):** Marko Flores, Eider Mazkarian, Lucia Andueza, Uxue Juanez, Oier Olaberria, Xabier Curiel, Unai Gomez, Asier Flores, Markel Lizarraga, Alex Gonzalez, Gabriel Gonzalez, Aitzol Hernaz eta Ibai Galarza. **Entrenatzaileak: Iker Flores, Ismael Perez eta Xabier Ramirez de Alda. Babesleak: Quesos Albeniz, La tasca de Don Jose, Katealde eta Garaje Urbasa. Kadeteak (7):** Andoni Yerai Bedoya, Ion Aierbe, Iker Begiristain, Iker Gomez, Ekaitz Perez, Ekain Imaz eta Hegoi Garcia. **Entrenatzailea: Tomas Martinez. Babeslea: Quesos Albeniz. Juniorrak (5):** Xabier Borrega, Ander Villalobos, Asier Etxebarria, Mikel Regil eta Iker Agudelo. **Entrenatzailea: Eneko Vilar. Babeslea: Quesos Albeniz.**



Garaje Urbasa, S.A.



Laguntzaileak: Txartel, Pienso Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritzza, Mapfre, Markor S.L., Carpintería Larrainbide, Yeregi ileapaindegia eta Ifuel.



**Maidar Betelu Ganboa** ARBIZU

"Soka jaso. Ongi kokatu. Tenkatu. Denak batera: tira!". Nerea eta Belen Lizarraga Berastegi ahizpek Iñigo Aritza eta Andra Mari ikastoletako sokatira taldeak entrenatzen dituzte ostiralero Arbizuko kiroldegian. Aurten bost talde trebatzen ari dira igandean Antsoainen hasiko den Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketarako. "Iñigo Aritzatik bi talde daude kadeteen mailan, eta Andra Maritik bi talde haurren mailan eta talde bat kadete mailan. Guztira bost talde dira. Izan dira zortzi eta bederatzi talde izan ditugun urteak ere. Nola edo hala, moldatzen gara" dio Nerea Lizarragak.

### Sakana sokatira taldea

Nerea eta Belen Lizarraga sokatiran aspaldiko ezagunak dira. 1995. urtean sortutako Sakana sokatira taldeko tiralariak izan ziren biak. Sakanako Mankomunitateak herri kirolak sustatze bidean, sokatira ikastaroa antolatu zuen eta hortik sortu zen emakumezkoen Sakana sokatira taldea. "Arbizuarrak animatu ginen, neskak, eta Lakuntzan entrenatzen genuen, igerilekuen ondoan dagoen Sakana frontoian. Frontoian polea jarrita zegoen eta horregatik entrenatzen genuen han. Arbizuko kiroldegia egin zutenetik bertan hasi ginen entrenatzen, kiroldegian sokatiran aritzeko beharrezkoak diren zuloa, poleak, pisuak eta beharrezko guztia jarri zutelako" gogoratu du Nereak.

Jokin Razkin arbizuarra izan zen euren entrenatzailea hasieratik, "baina aldaketa batzuk ere izan genituen, Jone Arbizukoa ere gurekin aritu baitzen entrenatzaile tarte batean. Izan ere, gu hasi ondotik mutikoak ere hasi ziren sokatirara entrenatzen eta tiratzen. Nolanahi ere, mutilen taldeak ez zuen asko iraun, lau urte inguru, bosten bat gehiezez jota, eta gero Jokinek gurekin jarraitu zuen" gaineratu du sokatiralariak.

Sakana sokatira taldea berehala nabarmentzen hasi zen. Oso gogotsu hasi ziren, indartsu. "Kontuan izan herri kiroletan sortu zen lehen emakumeen taldea izan zela. Guztiak arbizuarrak ginen, ezagunak... eta horrek indarra ematen dizu" dio Nerea Lizarragak. Gustura eta zorrotz entrenatuta, berehala punta-puntako taldea bilakatu ziren. Be-

# Lizarragatarrak, sokari lotuta

**SOKATIRA** Nerea eta Belen Lizarraga Berastegi ahizpak Nafarroako Herri Kirol Jokoen parte hartzen duten sokatira talde sakandarren entrenatzaileak dira. Munduko sokatira txapeldek bitzita guztia daramate sokari lotuta



Belen eta Nerea Lizarraga Berastegi Arbizuko kiroldegian.

randuago etxarriarrak eta Txantreakoren bat hasi ziren. Talde berberarekin aritzen ziren pisu txikian (480 kilo) eta pisu handian (520 kilo), epaileen eta gainontzeko taldeen harridurarako. Nafarroako Sokatira Txapelke-

**SAKANA, MUNDUKO TXAPELDUNA. JAPONIAN DUELA 20 URTE GERTATUTAKO NOLA AHAZTU**

tara aurkeztu ziren lehen aldian txapela lortu zuten. Gero Euskadiko Txapelketa irabazi zuten eta horrek nazioarteko txapelketan aritzeko atea zabaldu zien. 1999 urtean Dublinalen jokaturako Munduko Sokatira Txapelketan "bi-

garrenak edo hirugarrenak, ez dut ongi gogoratzen" izan ziren, eta 2000 urtean Herbeheretan jokaturako Mundialetan Sakana sokatira taldea munduko txapel-duna izan zen. "Munduko txapel-dunak. Sekulako poztasuna izan zen. Hurrengo urtean, 2001ean, Japonian zer gertatu zen mundu guztiak daki" dio Nerea Lizarragak. Nola ahaztu.

### Japonia, 2001

Abuztuaren 26an 21 urte beteko dira Japoniako Akitan jokaturako Kirol Ez Olinpikoen Munduko Txapelketan Sakana sokatira taldeak pisu txikian urrezko domina lortu zuenetik. Sakandarrek bigarrenez munduko txapel-dunak ziren. Euskal federaziotik emakumezkoen talde sakandarra eta gizonezkoen talde bizkaitarra ziren talde ordezkariak, Euskadiko txapel-dunak zirenak. "Munduko Txapelketa antolatzen den tokietan bertako taldeak edo selekzioak izaten dira normalean favorito, txapelketa hobeto prestatzen dutelako. Ez genuen espero irabaziko genuenik, baina dena eman genuen eta 480ko munduko txapelketa irabazi genuen" oroitzen du Lizarragak. Podiumera igo ziren, ikurriña eskutian, eta bat batean Espainiako ereserkia entzun zuten. Elkarri begira jarri, podiumetik jaitsi, bigarren eta hirugarren sailkatuei eskua eman -japoniarrak eta herbeheriarrak- eta alde egin zuten. Nazioarteko txapelketak TWIFT Nazioarteko Sokatira Federazioak antolatzen zituen eta euskal taldeek hamarkadak zeramatzen txapelketa ofizial horietan parte hartzen, Euskadiko Herri Kirol Federazioaren bidez. Espainiako Sokatira Federaziorik ez zegoen -gaur egun ere ez dago-. Ordura arte irabazterakoan tiralariak We are the champions kantua jartzen zuten eta TWIFT federazioko bandera. Horregatik sorpresaz hartu zuten Espainiako ereserkia entzutea. "Kontua da Japoniako txapelketak Kirol Ez Olinpikoen Munduko Txapelketak zirela, eta Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) antolatu zituen TWIFT-ek beharrez, txapelketa hartako kirolak Olinpiar Jokoen parte hartu nahi zituztelako. Horregatik jarri zuten Espainiako ereserkia. Gurea erantzun espontaneo izan zen, unekoa, aurretik prestatu gabekoa. Podiumetik jaitsi,





Nerea eta Belen Lizarraga, Iñigo Aritzako kadeteen talde bat trebatzen, alboan laguntzen dien iloba dutela.

arerioak agurtu, ez baikenuen inor mindu nahi, eta atera ginen" azaldu du Nerea Lizarragak.

Horrek sekulako zalaparta sortu zuen. "Hurrengo egunean 520koan lehiatzekoak ginen eta galdetu ziguten irabaziz gero ea zer egingo genukeen. Berbera egingo genuela erantzun genien, eta horrela parte hartzeko ezin genuela aritu esan ziguten. Hori kontuan izanda, parte hartzeari uko egin genion, mutilen euskal selekzioa ez kaltetzeko. Izan ere, mundiala urte osoko lana da, eta gu erretiratzean mutilei mundialetan aritzeko aukera eman nahi genien, hurrengo egunean tiratzekoak baitziren. Agiri bat sinarazi zieten, irabaziz gero Espainiako ereserkia entzutean ez zirela joango ziurtatzeko, baina azkenean Euskal Herriko talde guztiak txapelketatik bota zituzten" kontatu du tiralariak.

#### Kritikak eta babesa

Une gogorak bizi zituzten. "Persona non grata izendatu gintuzten, pentsa! Denetatik entzuten zen, hegazkin bat ere prestatuko zigutela bueltatzeko. Gau hartan mugimendu handia egon zen eta beldurra ere pasatu genuen. Gai-nontzeko taldeak ere harrirituta zeuden sortutakoarekin" gaineratu du Nerea Lizarragak. Herri kirolarien artean ere giroa gaiztotu zen, federazioan askok ez zutelako ulertu tiralari sakan-darrek egindakoa. "Behin bueltatuta, federazioan talde batzuk esaten ziguten ea zergatik egin genuen hori, hemendik aurrera nazioarteko txapelketetan ezin-genuela gehiago lehiatu leporatu ziguten... denetatik entzun

behar izan genuen, eta mespretxu begirada asko jasan" aipatu du.

Baina euren alde jende asko kokatu zen, gizartea, orohar, tartean Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea. Japoniatik bueltan, sekulako harrera egin zieten aireportuan. "Beste garai batzuk ziren, eta hemen gertatzen ari zenaz ez genekien ezer. Aire-portura iristerakoan harrirituta geratu ginen; oso polita izan zen. Hunkitu ginen, ez genuelako halako harrerarik espero. Eta baita Arbizuko ongi etorria ere. Zerbait espero genuen, baina horrenbeste jende biltzea, plaza beteta egotea, bideoa ere jarri ziguten... oso polita izan zen. Eta beste herri askotan ere omenaldia egin ziguten" gogoan du.

Euskal selekzioaren aldeko bidean euren alea jarri zuten

### GAZTETXOAK TREBATZEN "OSO GUSTURA" ARITZEN DIRA LIZARRAGA AHIZPAK

### "GARRANTZITSUENA TEKNIKA DA, SINKRONIZAZIO HORI LORTZEA" NEREA LIZARRAGA

### "HASIERAN PISU ARINEKIN POSTURA ETA KOORDINAZIOA LANTZEN DUGU" NEREA LIZARRAGA

sakandarrek, lehendabiziko urratsa. Hasieran TWIFen klub mailan lehiatzeko aukera berreskuratu zuten euskal taldeek, eta 2014an TWIFek izaera ofiziala aitortu zion euskal selekzioari eta Basque Country izenpean lehiatzen da. "Jende askok lan handia egin zuen lorpen horretarako" nabarmendu du.

**Bukaera, eta beste hasiera bat**  
Japoniako mundiala irabazi eta bizpahiru urte ondoren Sakana sokatira taldeak agur esan zion bere ibilbideari. Ikasketak zirela, lana zela, zenbaitzuk familia sortu nahi zutelara, geroz eta zailagoa egiten zitzaien entrenamenduetarako biltzea eta taldeak jarraipena izatea. "Azkenean dena ezin daiteke", tiralariak dioen moduan. Baina Nereak eta Belenek sokatirari lotuta jarraitu zuten, berehala Nafarroako Herri Kirol Jokoen Iñigo Aritzako sokatira taldeak entrenatzen hasi zirelako. "Gure entrenatzailea, Jokin, Andra Mari sokatira taldeekin hasi zen. Eta guri Iñigo Aritzako taldeekin aritzeko deitu ziguten. Denborarekin Jokinek utzi zuen, eta ordutik Andra Mari eta Iñigo Aritza taldeak trebatzen ditugu" dio ahizpa gazteenak.

Neska-mutilak trebatzen "gustura" aritzen dira. "Talderen bat errebelde xamarra egoten da, baina orokorrean txintxoak dira" diote bi ahizpek. Pandemiagatik iaz ez ziren lehiatu, eta hori "nabaria" dela dio Lizarragak. "Aurretik parte hartu izan duten gaztetxo batzuk daude, baina beste asko guztiz berriak dira. Zaila da egun gutxitan maila ona

emateko taldea sortzea, baina oso gogotsu daude. Aurreko urtean lehiatu ziren taldeek zein maila duten ikusteko dago, baina gurek parte har dezatela, ikas dezatela eta esperientzia hori har dezatela. Gustura egon badira, datorren urtean hobe egingo dugu" diote lizarragatarrek, irribarrez.

#### Teknikaren garrantzia

Sokatiran indarra baino teknika da garrantzitsuena. Lehenengo gauza "gogoa" izatea da, "eta asko entrenatzea, teknika ikastea. Hori da garrantzitsuena. Ongi kokatzea, postura egokia izatea, guztiak batera mugitzea eta aldi berean tiratzea... koordinazio eta sinkronizazio hori lortu. Eta hori entrenamenduekin lortzen da. Lehendabizi pisu arinekin postura mantentzen eta koordinazioa izaten ikasten dute, eta pixkanaka pisu gehiago sartzen diegu" dio Nereak.

#### Sokatirak "asko" ematen die

Sakana sokatira talde berriren bat sortzea "zaila" ikusten dute. "Gu horren atzetik ibili gara aurreko urteetan, baina zaila da ikasketak eta beste uztartzea" diote. Nafarroako Herri Kirol Jokoen taldeekin jarraitzen dute sokatirari lortu. "Guri sokatirak gauza asko eman dizkigu: taldeko esperientzia hori, jende asko ezagutu dugu, esperientzia asko bizi izan ditugu, gustuko dugun kirolean aritu izan gara, oso gustura" aitortu dute. Eta orain gazte hauek zer ematen dieten? "Gustaturik gero soka-kontentu daudela ikusteak eta txapelketaren bat irabaziz gero,

## Antsoainen hasiko da txapelketa

Igandean hasiko da Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketa, Antsoainen, 10:30ean.

Guztira bost jardunaldi jokatu dira: martxoaren 13an, Antsoainen; martxoaren 20an, Etxarri Aranatzin; martxoaren 27an, Altsasun; apirilaren 3an, Igantzin, eta apirilaren 10ean, Betelun. 10:30ean hasiko dira jardunaldiak. Hasieran herri kirol proba konbinatuak jokatu dira, kimuen, haurren eta kadete mailakoak, eta ondoren sokatira txapelketak, haurren eta kadeteen mailan.

Sakanatik, Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik sortutako taldeek parte hartuko dute, bai herri kirol proba konbinatueta eta baita sokatiran ere. Haiekin batera Antsoain, Betelu, Igantzi, Lesaka eta bestelako klub nafarretatik sortutako taldeak lehiatuko dira. Urteko urtera parte hartze handiagoa dute Nafarroako Herri Kirol Jokoen.

euren poz aurpegiak ikusita, horrekin nahikoa dugu. Beraiek gustura egotea, hori da garrantzitsuena". Ziur lortuko dutela.



## Donostiako Lilatoitik Olaztiko Lilasterketara

**ATLETISMOA** Martxoaren 20an Olaztin antolatu den Lilasterketarako izena ematea zabalik dago

Igandean 26. Lilatoia jokatu zen Donostian, kirolean ere genero berdintasuna aldarrikatzeko emakumezkoen lasterketa. Atletico San Sebastian taldeak antolatutako probak zituen 5 kilometroak oso giro onean bete zituzten lasterketan parte hartu zuten 5.000 emakume inguruk, tartean sakandar askok. Festa egun honetan parte hartzea zen erronka, eta kuadrillan, oinez eta ahal zen moduan osatu zuten lasterketa partaideek, garrantzitsuena mezua baitzen. Aratz Rodriguez Bilbao izan zen azkarrena (16:59).

### Izena emateko

Donostiako Lilatoari lekukoa hartuta, martxoaren 20an, igandearrekin, abiatuko da emakumeen IX. Lilasterketa, Altsasuko eta Sakanako Berdintasun Zerbitzuek, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zerbitzuak antolatuta. 11:00etatik aurrera, korrika, patinetan, bizikleta, oinez... emakumeek nahieran parte hartu ahal izango dute ekimenean. Izena ematea zabalik dago [berdintasuna@sakana-mank.com](mailto:berdintasuna@sakana-mank.com) posta elektronikokoan, eta parte hartzera animatu dituzte emakume sakandarrak.

# Ailetz Lasa, Euskaldun Torneoko lider berria

**TXIRRINDULARITZA** Laboral Kutxa taldeko ziordiarra afizionatuen mailako Euskal Herriko txapelketa garrantzitsuenaren buruan kokatu da. Bere taldekide Iker Mintegi altsasuarra otsailan izandako ererikoaz osatzen ari da

### Maider Betelu Ganboa SAKANA

Afizionatuen mailako txirrindularitzak berri ona ekarri du: Laboral Kutxa taldeko Ailetz Lasa Lizarraga ziordiarra da Euskaldun Torneoko liderra. Oso atzera egin beharko genuke sakandar bat Euskal Herriko torneo prestigioetsueneko buruan ikusteko.

Torneorako puntuatzen duten bi lasterketa jokatu dira orain arte, Zumaiaiko Saria eta Ereñoko Saria, eta ziordiarrek bertan egindako lanari esker -Zumaian zortzigarren sailkatu zen, eta Ereñon zazpigarren- Euskaldun Torneoko sailkapenaren buruan kokatu da Lasa (23 puntu). Biga-



Mintegi, ezkerrean, eta Lasa, eskuinean, Laboral Kutxako bi sakandarrak. LABORAL KUTXA

ren Nikolas Agirre da (Latorre, 21 puntu) eta hirugarren Fergus N. Robinson (Eiser, 19 puntu).

Ailetz Lasak 2019an debutatu zuen afizionatuetan Laboral Kutxarekin eta aurtengoa bere hirugarren urtea da. Joan zen urtean afizionatuen lehenengo garaipena lortu zuen, Dorletako Ama Saria, eta aurten ongi hasi du denboraldia.

### Iker Mintegi, osatzen

Horrenbeste zorte izan ez duena bere taldekide Iker Mintegi Claver altsasuarra da. Mintegik eskumuturra apurtu zuen Laboral Kutxak otsailean Iparraldean jokaturako lasterketa batean, Baionatik gertu. Osatzen ari da, dagoeneko errepidean entrenatzen dago, eta aurki lasterketara bueltatzea espero du. Aurtengoa bere bigarren denboraldia izango da Laboral Kutxan.

### Igandean lasterketa Altsasun

Burunda klubak antolatuta, igandean juniorren XXXVI. Udaberri Saria jokatu da (80 km). Lasterketa 10:30ean abiatuko da eta txirrindulariek bitan igo beharko dute Altamira portua.

## Brontzezko Erkuden Jinxin

**TAEKWONDOA** Espainiako Junior Taekwondo Borroka Txapelketan Bargagaingo Erkuden Jinxin Moreno Muñoz altsasuarra 44 kilo azpiko pisuan lehiatu zen, Jaenen. Final laurdenetan 17 eta 1 irabazi zion Daniela Gimenezi, baina finalerdietan ezin izan zuen Silvia Otero mendean hartu. Morenok Alicia Nuñezekin (Andaluzia) partekatu zuen brontzea.



ESPAINIAKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

## IRRIKAKETA Irristalari azkarrenak Olaztin bilduko dira

Nafarroako Kirol Jokoen Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako lehen jardunaldia hartuko du Olaztiko Erburua kiroldegiak larunbatean 10:00etatik aurrera, Sakana Patin irristaketa taldeak antolatuta. Kategoria guztietako lasterketak jokatu dira, kategoria txikienetatik hasita senior mailara bitartean.

## Xotako neskei aitortza

**ARETO FUTBOLA** Martxoaren 8an jokaturako Osasuna Magna eta Inter Movistar taldeen arteko Lehen mailako partidako atsedendian Xotak eta Lacturalek klubeko emakumezkoen taldeetan lehiatzen diren areto futbol jokalariei aitortza egin zieten Anaitasunan. Haurren, kadeteen eta seniorren mailako Xota taldeen ordezkariak jaso zuen omenaldia.



XOTA



# Beldurrak ikertzen

Xabier Artieda antzezle etxarriarra beldurrak aztertzen dituen zientzialari "ero" bat bihurtu da 'Nire bildurrik maiteenak' antzezlanean. Producciones maestras konpainiaren lana da, eta musika, ikus-entzunezkoak eta antzerkia uztartzen ditu

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Bat esateagatik, adibidez, bertigo handia daukat. Altuerak beldurra asko ematen didate. Gaixotasunek, batzuetan ere, beldurra ematen dute. Helduago egiten garen heinean, nik uste horri beldur handiagoa diozula". Antzoki batean publikoaren aurrean jartzea, ordea, dagoneko ez dio beldurrik ematen Xabier Artiedari, "nahiz eta beti urduritasun puntu bat duzun". Baina beldurrak beti hor daudela azaldu du antzezleak, "eta azkenean beldurrik gabe biziko bagina, ez dakit asko irauko genukeen".

Beldurrek babesten dute. "Babesteko instinto bat dira". *Nire bildurrik maiteenak* antzezlana "hortik doa": beldurrak hor daudela, bakoitzak bere beldurrak dituela eta haiek kudeatzen ikasi behar dela erakusten du Producciones Maestras konpainiaren lanak. "Beldurrak kentzeko baino, beldurrak ulertzen laguntzen du". Martxoaren 20an, igandean, 17:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean emanaldia egingo dute.

## Musikala

Von Soria eta Von Simon "pixka bat ero" dauden bi zientzialari, bizitza osoa daramate beldurren inguruko ikerketak egiten. "Transilvanian edo daude, pixka bat arraro hitz egiten dute, eta beraien ikerketak egiten ikusten ditugu. Azkenean, beldurrekin kontaktatzea lortzen dute, eta beraien interakzioak dituzte". *Nire bildurrik maiteenak* sei urtetik gorako haurrendako gomendatuta dago, "baina helduak gustura ikusteko pentsatuta dago".

Producciones Maestras konpainia ezagunak egin du antzezlana.



Iker Bengoetxea eta Xabier Artieda 'Nire bildurrik maiteenak'-en. UTZITAKOA

na. "Deitu ninduten bertan parte hartzeko, pertsonaia bat egiteko". Testua Ana Maestrojuánena da eta gaztelaniazko bertsioan Angel García Moneo eta Artieda dira protagonistak; euskarazko bertsioan, berriz, Iker Bengoetxea eta etxarriarra. "Gutxinaka zuzendariarekin berak nola nahi zuen azaldu zigun, eta pertsonaiak nondik nora joan nahi zuen ikusi zuen. Lasai-lasai jolasten pertsonaia ateratzen da. Testuak ematen dizu pertsonaia". Ikuskizuna komedia musikala da. "Abesten dugu. Gorka Pastorrek egin du konposizio musikala".

Artiedak Nafarroako Antzerki Eskolan Gorputz antzerkia ikasi zuen, baina bitartean Iruñeko Orfeoian aritu zen, eta zenbait musika taldetan ere egon da. "Nire Madrilgo etapan, uda batean, orkestra batean herriz herri egon nintzen festak egiten". Gaur egun, *The Road* izeneko musika talde bat dauka, eta udan emanaldiak egitea aurreikusten du. Iker Bengoetxeak, *Nire bildurrik maiteenak* antzerkiko lankideak, Sudurgorri bikoizketa ekoiztetxea du.

"Gorputz antzerkia eta musika batera jartzen ditut; gorputza eta ahotsa gauza bera dira". Kirola egiten denean gol edo kanasta bat sartzerakoan ateratzen den oihuarekin alderatu du Artiedak, "garrasi hori gorputzarekin batera doa. Biak konektatuta daude". Musikala egitea edo antzerki fisikoa egiteak, beraz, "beti dauka zerbait antzeko. Oinarrian beti gorputz antzerkia dago".

## Lana

Producciones Maestras eta Tdiferencia Nafarroan "mugimendu" handia duten bi konpainia dira. "Nik haiekin lan egiten dut. Ezagunak dira eta urte asko daramatzate mundu honetan. Urteak eta konstantziak ematen dizu leku bat". Antzelea sasoi olean dago: "Martxoaren 25ean eta 26an ikastetxeetan egiteko matxismoaren kontrako *Libre zu, libre ni* antzezlana estreinatuko dugu". Bestetik, Iruñeko Karrikirik antolatutako Nano-antzerki zikloan parte hartuko du martxoaren 24an, 19:30ean, Gorputz antzerkia eta komedia saioarekin. "Everybody needs... nire proiektuen esketxen zati bat da". Momentu honetan hainbat

proiektutan murgilduta dago Artieda, "zorionekoa da horrela ibiltzea. Oxala horrela beti". Kontratatzan duten konpainiekin "oso eskertuta" dago, baita kaleratzen dituen proiektuek ere "bere txokoa" aurkitzearekin ere.

Pandemiak kulturaren sektorean gogor jo zuen, eta pixkanaka "normaltasunera" itzultzen ari da, hala ere, "oraindik kostatzen da. Zerbait aldatu da. Guk nabaritzen dugu. Ez dakigu zer den zehazki, baina jendea ez da hainbeste mugitzen; lehen bezainbeste". Aurrerago egoera hobetzea espero du Artiedak. "Pandemian gauden arren egoera normalizatu da, baina ez dakigu zergatik antzokiak ez dira hainbeste betetzen. Jendea antzerkira joatera animatzen dugu, beharrezko esperientzia delako". Zuzeneko interakzioa, bisualki oso berezia dela "poetikoa" delako, eta gauzak lantzen dituzten modua goraiatu ditu antzezleak. "Antzerkia beti egongo den zerbait izango da. Antzerkiak beti irauko du, eta irau du. Pandemia bat pasatu du ere. Pozgarria da".

## 'Heroes' eta 'Energy'

Xabier Artieda "konpainia berri" bat bada ere. "Hor nabil nire txokoa aurkitzen eta gauzak ateratzen direnean eskertzen ditut". Momentuz, gorputz antzerkian oinarritutako bi produktu ditu: *Everybody needs... Heroes* eta *Everybody needs... Energy*. Lehenengoa 2019. urtean aurkeztu zuen, "eta gero pandemia etorri zen". 2021eko irailean bigarrena atera zuen. Gainera, musikalki taldetxoak dauka ere eta kontzertuak eskaintzea espero du Artiedak.

Duela gutxi *Everybody needs...* proiektuarekin Madrilan eta Valladoliden egon zen. "Zukua atera diot. Zirkuituetan sartzen saiatzen ari naiz, baina denbora behar da proiektuetan sartzeko, eta hainbeste proiektutan sartuta nagoenez, ez dut denbora nahikorik. Baina, beno, hau dena etengabeko ikasketa bat da".

**"JENDEA ANTZERKIRA JOATERA ANIMATZEN DUGU, BEHARREZKO ESPERIENTZIA DELAKO"**



# Haize Berriak banda, bere esentzian

Sakanako bandak 25 urte bete ditu aurten, eta mende laurden honetan berarendako konposatutako obren kontzertua eskainiko du martxoaren 19an, Iortia kultur gunean; '%100 Haize Berriak' izanen dena

## ALTSASU

Haize Berriak banda tradizioa da, baita berrikuntza, gozamina, ustekabea, ikerketa, garaikidea eta abar ere. Sakanako musika bandak 25 urte bete ditu aurten, eta ospatzeko kontzertu berezia eskainiko du martxoaren 19an, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean: 25 urte hauetan bandarendako konposatu dituzten lanen errepaso egingen dute musikariek. Haize Berriak bandako bazkideek sarrerak bost eurotan eros dezakete, eta ez bazkideek sei eurotan.

Duela mende laurden, Altsasun fanfarre bat zegoen. Bertatik banda bat sortzea zerbait naturala zela esan zuen Javier Unamuno Asartak hasieratik bandan dabilen musikariak. Sakana guztiko musikariak biltzen ditu. Banda 25 kiderekin hasi zen, eta dagoeneko bandaren ibilbidearen talde handienetarikoa bat sortu dute: 44 kidek osatzen dute banda. Gainera, bandatik azaldu zuten, inoiz baino gazteagoa da ere, eta musikariren erdiek 25 urte baino gutxiago dute. Bandak etorkizuna badu.

Duela gutxi, eta pandemia tarterko, David Sánchez Andiñon erriberriarrak hartu zuen bandaren zuzendaritza, eta harekin ziklo berri bat hasi zuen bandak.



Haize Berriak banda. ARTXIBOA

Ziklo berri horrekin batera, bandaren 25. urteurren ospakizunek bat egin dute.

Haize Berriak bandari erronkak gustatzen zaie. Ez dira nolanaiko emanaldiak egitearekin konformatzen, eta urrats bat gehiago ematea gustatzen zaizkio. Hilaren 19an eskainiko duten kontzertuan goi mailako lanak interpretatuko dituzte, bandarako propio sortutakoak. Sakana bandarako abestiak sortu dituzten konpositoreen artean, besteak beste, hainbatetan saritutako nazioarteko konpositoreak

daude, esaterako, Thierry Delruyele; Euskal Herriko egile ezagunen abestiak eskainiko dituzte ere, Margarita Lorenzo de Raizabalen konposizio bat; tradizioz betetakoak Carlos Etxeberriaren eskutik; berrikuntzaz Vicente Egeak sortutako abestiarekin edo Alberto Gonzalez Urrozaren dibertimentua.

Haize Berriak bandaren aurrekontutik zati handi bat konposizioetara bideratzen dute, eta bandaren ezaugarrietako bat kontzertu bakarrak eskaintzea da.

Irurtzango kultur etxean. Iluna konpainiaren *Con los ojos abiertos* Miguel Hernández poetaren inguruko antzezlanaren izen da 19:00etan. Apirilaren 22an Lucio, una refelxion escénica izanen da Iortia kultur gunean eta maiatzaren 5ean, *Pioneras-Aitzindariak*, Etxarri Aranazko kultur etxean. Udazkenean hiru emanaldi gehiago izanen dira Sakanan: *La reina del Arga* Irurtzunen eta Etxarri Aranazten, eta *Hoy puede ser mi gran noche* Altsasun.

## 'Sendaberri, Paisaia Eszeniko Berriak' zikloa aurkeztu dute

Nafarroako Antzoki Sarearen zirkuituaren oinordekoa da eta 29 udalerritarira iritsiko da, tartean Sakanara

## SAKANA

Hamabai konpainiek 55 emanaldi eskainiko dituzte Nafarroa osoko herritan, tartean Irurtzunen, Etxarri Aranazten eta Altsasun. Nafarroako Antzoki Sareak Nafarroako Gobernuko

Kultura eta Kirol Sailarekin batera ziklo berritua aurkeztu du: *Sendaberri, Paisaia Eszeniko Berriak*.

Igandean, martxoaren 13an, *Sendaberri* zikloko lehenengo emanaldia izanen da Sakanan,

## Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

Askatasunari, justiziari eta berdintasunari kantatzen dio Iñaki Auzmendi Lacunza abeslari etxarriarrak. Oso gazte zela, hamahiru edo hamalau urterekin, idatzi zuen bere lehenengo kanta, eta gaur egun, zenbait hamarkada beranduago, oholtzaren gainean jarraitzen du. Hiru disko kale-ratu ditu: *Raíces de piedra y esperanza* (2014), *Momentos* (2016) eta, azkena, *A sembrar* (2021). Gizarte arazoak, herri txikien desagertzea, borrokarako grina eta abar dira Auzmendiaren abestien gai nagusiak; konpromisoa eta aldarrikapena. Azkena, intimoagoa dela esan du abeslariak, eta pertsonengan oinarritu da ere. Larunbatean Lakuntzako kultur etxean diskoaren aurkezpen emanaldia egin zuen Ana Turcan biolin jotzailearekin eta Junmi Arzelus gitarra elektriko jotzailearekin.

## Kantautorea zara. Zer esan nahi du horrek?

Kantautorea izatea da adierazi nahi izatea norberak ikusten duena eta norberak bizi duena musikaren eta bertsoaren bidez. Ez diot poesia deituko, baina letren eta musikaren bidez adieraztea. Bizitzen ari zaren errealitateari zentzu bat eta ispilu bat ematen diozu. Kantautorea izatea ere esan nahi du kritiko izatea, gizakia eta gizartea barrutik begiratzea. Kantautore bat jaiotzez denean, ni kantautore jaio nintzela, abestien bidez momentuko gizartearen isla bilakatzen da.

## Kantautore jaio zinela esan duzu. Noiz hasi zinen?

Ez dakit nola sortu zitzaidan zehazki. Nik uste bakoitza den modukoa dela, eta barrutik nuen zerbait zen. Gogoan dut txikitik, Etxarri Aranazko eskolan, poesia, narrazioa, kontatzea, islatzea eta abar gustatzen zitzaidala. Kritiko nintzen ere, eta inguruan zegoenaz hausnartzea gustatzen zitzaidan. Baita musikari ere, nola ez. Txikitatik egon nintzen musika eskolan; aitari musika asko gustatzen zitzaion, eta oso gaztetik solfeora joan nintzen. Abesbatza zegoen ere... Orduan, bi gauzak elkartzen dira, idazteko nahia eta gogoia eta musika, eta hori sortzen da. Garaiko kantautoreetatik edan nuen ere, Paco Ibañez, Victor Jara eta abar. Eragiten zidaten musikariak izan ziren.

## Zein momentutan erabaki zenuen kantautorea izango zinela?

Gauzak kontatu eta idatzi behar nituela sentitu nuen momentuan. Askatasunaz eta berdintasunaz hitz egitea behar izan nuenean. Lehenengo abestia hamahiru bat urterekin idatzi nuen, eta errezitalen bat zegoenean eta nire abestiak kantatzeko aukera ematen zidatenean, bertan aritzen nintzen. Publikoaren aurrean kantatzen nituen abesti horiek, eta disfrutatzen nuen komunikatzen eta transmititzen; bizitza musikaren bidez elkarbanatzea gustatzen zitzaidan. Gero etenaldi bat izan nuen ezkondu nintzenean eta haurrak izan nituenean, kontzertuak alde batera utzi nituen, baina gero berriro itzuli nintzen. Labordetari Madrilen egin zioten kontzertu batean itzuli nintzen. Niretzako kantautore izatea bizitza da. Ni autore kantaz bizi naiz. Jateko beste zerbait egiten dut, baina honetaz bizi naiz.

## Nola sortzen duzu?

Nik uste lehenengo gauza dela, behintzat nik, nire esperientziatik horrela egiten dut, gizartea modu kritikoa hausnartzea. Horregatik kantautoreak pixka bat arraroak garelako esaten dute. Esaten digutenean: "Baina orain askatasuna dago". Ez, orain ez dago askatasunik. "Baina orain berdintasuna dago!". Ez dago berdintasunik. Askatasuna oso gaizki erabiltzen den hitz bat da. Oraindik abesteagatik jendea kartzelan dagoenean, nola esan daiteke askatasuna dagoela? Emakumezkoen eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunak ikusita, nola esan daiteke berdintasuna dagoela? Edota gizarte desberdintasunak... Gauza horik ahaztu egiten zaizkigu kontsumo gizarte honek akomodatzen gaitu egoera batera non uste dugun gauza asko izateagatik zoriontsu garelako. Nik ikusten ditut gauza asko ez zaizkidanak gustatzen, eta abestien bidez horiek kritikatzeko ditut. Eta horregatik kantautoreak deserosoak gara. Horregatik ere gutxieneko kontzertuak ditugu. Jendeak dantza egin nahi duelako, ez ditu arazoak entzun nahi. Paco Ibañezek dio, 87 urte dituela, dagoeneko ez direla kantautore abestiak egiten. Orain maitasunaz eta abar hitz egiten duten abestiak egiten dituzte, baina kantautoreen abestiek konpromisoa behar dute izan; gizartearekiko konpromisoa.





Iñaki Auzmendi (erdian) Lakuntzan eskaini zuen kontzertuan; Ana Turcan eta Juanmi Arzelusekin. UTZITAKOA

# "Kantautore jaio nintzen, kantak sortzea behar bat da"

**IÑAKI AUZMENDI LACUNZA KANTAUTOREA**

Urte amaieran 'A Sembrar' diskoa kaleratu zuen Etxarri Aranazko musikariak. Larunbatean, Lakuntzako kultur etxean aurkeztu zuen.

Hori ez da egiten. Gelditzen gara lau inguru. Gaur egun, jendeak ez du hausnartzen. Guk abesten genion askatasunari. Gogoan dut Fermin Valentziarekin kantatzen nuenean, gabon kantak ere zentsuratsen zizkiotela. Bide horretan jarraitzen dugu; berdin pentsatzen jarraitzen dugu.

**Urte amaieran 'A sembrar' diskoa kaleratu zenuen. Zer kontatzen du?**  
A *sembrar* diskoak gauza intimoei buruz hitz egiten du; pertsonen buruz hitz egiten du; harritzen zaituen gauzei buruz, zerbait

esaten dizutenak, eta gizarteari buruz hitz egiten du. Abesti bat, esaterako, *Falsa utopia* da: bizitzaren arlo utopiko hori galdutako dugu, eta dagoeneko ez du ezeregarik borrokatzea merezi badirudielako dena lortu dugula.

**"ASKATASUNAZ ETA BERDINTASUNAZ HITZ EGITEA BEHAR IZAN NUENEAN HASI NINTZEN"**

Utopia hori behar dugu merezi duten gauzengatik borrokatzeko. Abesti intimoagoak daude, adibidez, *Canción para soñar*. Herri txiki batean bizi den homosexual baten inguruan hitz egiten du, gaur egun adinekoa dena, eta bere duintasuna, jarrera eta abar goraiatzeko ditu. Beste abesti bat Pablondakoa da, nire lagun bat, down sindromea du eta nire abesti guztiak dakizki. *Abrirás tu ventana* abestia emakume ezagun batendako da. Egun batean kafe-tegian berarekin elkartu nintzen,

eta zer moduz zegoen galdetzean, medikuarenetik atera berri zela esan zidan eta bularreko minbizia zuela esan ziotela. Ez nekien zer esan, eta abesti bat idatzi nion. Gero, *A sembrar* abestia dago, diskoari titulua ematen diona. Diskoaren laburpen moduko bat da: ezinegonak, denak eztanda egiteko pizten duen sugarra, borrokatzea... *Volverás a besar el agua* herri eskainitako abestia da, lehen herrietan iturrietara joaten zen jendea ura hartzera eta bertan gertatzen zirenak. Alde batetik, disko intimoa da, eta bestetik gizartearen alde oso garrantzitsu bat dago.

**Pandemiak disko honen sorkuntzan zerikusirik izan du?**

Ez, inolaz ere ez. Badira artista batzuk esaten dutenak pandemia sortzeko baliatu dutela. Nire kasuan, ez. Nik ez dut pandemia ezertarako baliatu. Berdin jarraitu dut. Izoratu nau beste bezala, eta abestiren bat sortu dut, baina beti bezala.

**Sortzen jarraitzen duzu?**

Bai, noski. Nik ez ditut abestiak sortzen diskoak sortzeko. Duela gutxi Madrilen egon nintzen kontzertu bat eskaintzen, eta lagun batek esan zidan diskoa sortzeko abestiak egin zituela, eta orain Mexikora joango zela. Nik ez. Nik abestiak egiten ditut eta iruditzen zaidanean nahikotxo ditudala, diskoa aurkeztea erabakitzen dut. Gaur egun, gainera, diskoa sortzea zerbait oso zaharra da; dagoeneko ez daude CD erreproduktoreak ere. Gaur egun, Interneteko plataformak daude, bertan ere bango, Spotify-n. Diskoa ateratzen duzu etorkizun batean diskoa kaleratu zenuela esateko, baina gutxi gehiagorako.

**Larunbatean, Lakuntzako kultur etxean, kontzertua eskaini zenuen. Zer moduz joan zen?**

Oso gustura egon nintzen. Gainera, poztu ninduen bertan zegoen pertsona bat ikusteak, Juanjo Olasagarre. Olasagarrek diskoaren liburuxkarako abestien letrak euskaratu ditu, eta errespetu handia diot. Oso gustura egon ginen, zoriontsu. Lakuntzako Udala asko maite dut askatasunarekiko eta kulturarekiko oso

**"KONPROMISO BIDE HORRETAN JARRAITZEN DUGU; BERDINA PENTSATZEN JARRAITZEN DUGU"**

konprometituta dagoelako. Eszenatoki oso polita prestatu zuten, diskoarekin bat egiten zuena.

**Ez zinen bakarrik egon.**

Juanmi Arzelus arbizuarrarekin eta Ana Turcan moldabarrarekin jo nuen. Taldea sortu dugu eta oso pozik nago. Madrilen Libertad 8 aretora joaten naizenean bakarrik joaten naiz. Baina kontzertu batean kantautorearen kantak artisau moduan jo behar dira. Musikak artisautza izan behar du, eta ongi prestatu behar da dena. Akorde bakoitza entzun behar da. Niri ez zait gustatzen banda bat kantautorearekin, norberaren erabakia da. Uste dut zerbait xumea izan behar duela. Beti esaten dut zume saski zahar batean, baina garbi eta duin batean aurkeztu behar den zerbait dela. Zerbait oso garbia. Orduan, bi musikari hauek aurkeztea zerbait oso xumea da, eta ni oso gustura nago, nire estilokoa da.

**Zer geratzen zaizu egiteko?**

Egiteko geratzen zaidana da beti egin dudana egiten jarraitzea. Eta jarraituko dut egiten. Hau behar bat da. Hemendik urte batzuetara agian beste disko bat kaleratuko dut. Nork daki. Konpromisoarekin jarraituko dut eta borrokatzen jarraituko dut, sistema kapitalistak jartzen digun erosotasun honek guztiz ezetsituko. Beti borrokatzeko zerbait dagoela ezagutaraziz jarraituko dut. Hor arantza bat daukat, estilo honetara fidel mantentzen gaituena. Estilo bat non ez dituzun El Corte Inglesen diskoak salduko, eta ez duzun bizitza musikalean modu merkantilista batean egongo. Baina fidelak gara; horrelakoak gara, eta horrela jarraituko dugu.

**Zer gertatzen da kaleratzen ez diren abestiek?**

Bertan daude. Bertan gelditzen dira. Maitasunarekin ikusten dituzu, baina gauza batengatik edo besteagatik ez zaituzte auzten. Badituzte batzuk. Egunen batean, agian, hartuko ditut eta hobetuko ditut. Obraren zati bat da, bertan dagoena, baina edozer gauzengatik atera ez direnak. Orain beste diskoen abestiak prestatzen ari gara kontzertuetan eskaintzeko. Baina beste abesti batzuk ez dira inoiz aterako.

**Non eskura daiteke diskoa?**

Niri edo Binario estudioa deituz. Webunean ere eskura daitezke, baina eguneratu behar dut.



# "Jendea Korrikaren esperoan egoten da"

Martxoaren 31tik apirilaren 10era, Amurriotik Donostiara, Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du. Aitor Irigoien Irigoien, besteak beste, Sakanako Korrika-ko arduraduna, lan eta lan euskararen aldeko lasterketa prestatzen ari da.

Eneida Carreño Mundiñano eta  
Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

## 1 HitzEkin. Zer dago lelo horren atzean?

Hitz joko bat da, eta nik uste jendea bakarrik *hitzekin* delakoarekin gelditu dela, baina "hasi ekiten euskarari" esan nahi du: *Hitz Ekin*. Leloa sortu dutenek, horrelako zerbait transmititu nahi dute. Korrikako leloek beti dute zerbait xeblebra.

## 2 Atzera kontua hasi da. Nola somatzen duzu giroa?

Mugimendua bada. Kilometro salmentan, Sakanan 75 kilometro zeuden, eta bat saldu gabe gelditzen da bakarrik. Beste guztiak saldu dira. Herritan oraintxe momoxarroak eta abar izan dira, eta orain hasiko da gauza mugitzen. Gabonak, Santa Ageda, koronabirusa... Orain hasiko da Korrikaren giroa berotzen. Mugimendua badago. Koronabirusarekin ere bazirudien ez genekiela nola joango zen gauza, baina orain badirudi hobera doala.

## 3 Sakanako herritan hasi dira lan taldeak eratzen?

Bai. Korrika batzordeak deitzen eta sortzen hasi dira.



Aitor Irigoien Irigoien Korrika 22. kartelaren aurrean. UTZITAKOIA

## 4 Nola prestatzen duzue Korrika Sakanan?

Iraillean talde banaketak egiten ditugunean, Korrika urtean interesa daukanak edo egokitzen zaionari ordu batzuk hartu ditzake. Lehenengo hilabeteak nahiko lasaia izaten dira: kartelak bidaltzen dituzte, publizitate bila joan behar zara Korrika ikasturte honetan eginen dela gogoratzeko, arropa iristen da eta euskaltegian salgai jartzen dugu... Gabonak arte nahiko lasaia izaten da. Ondoren, Korrika arduradunak aurreko Korrikako kilometroen zerrenda hartzen du, eta parte hartu zutenekin harremanetan jartzen da eta kilometroak lortzen hasten gara.

## 5 Batzordeekin harremanetan zaude?

Beste zerrenda bat dugu aurreko urtetako Korrika batzordeko herritako arduradunekin, eta haiek aktibatzen hasten gara. Behin eta berriz hots egin behar izaten dugu.

## 6 Sakanan Korrikak aurkezpenik behar du?

Ez, Sakanan ez da aurkezpenik behar. Sakanak ona daukana kilometroak saldurik daudela da. Jendeak badaki zer den Korrika, eta esperoan egoten da. 75 kilometro ziren aurtan, eta dagoeneko ia dena salduta dago. Hots egiten duzu, eta baietz esaten dizute.

## 7 Jarraipena egin beharko duzu gero, ezta?

Burokrazia kontuak dira gehien bat egin behar ditudanak gero.

## 8 Erriberara joango den sakan-darrik badago?

Nik ez dut hori kontrolatzen, baina badira hemen kilometro bat erosten dutenak eta beste bat han. Aurrekoan kuadrilla bat Iparraldera joan zen. Badira bizpahiru kuadrilla.

## 9 Zer suposatu du Korrika urte bat atzeratzeak?

Ekonomikoki AEK-k egiten duena Korrikaren hurrengo urtean susperraldi moduko bat da. Orduan, aurtan bi urteko susperraldia izan da, eta zuloa sortu da. Sozialki Korrikak dauka jendea biltzeko ahalmen hori. Jendeak badaki zer den, eta aktibatzen da. Jende askok parte hartzen duen ekitaldi bat da, eta nik uste faltan bota dutela. Baina dena koronabirusaren testuinguruan ulertu behar dugu, eta garai honetan aurreko urtean kasu positiboen gorakadan geunden. Asmatu dugu urte bat atzeratzen. Joan den urtean gizartea ez zegoen horretarako prest.

## 10 Sakandar askok esango dute: berriz gauez.

Bai. Egia esan, euskaltegitik egunez izatea eskatu genuen. Baina Sakanan dena saltzen da... Guk daukagun onena da urtero pasatzen dela Korrika ibarretik. Beste tokitan ez da aldiro pasatzen. Gainera, aurtan ostiraletik larunbatera tokatzen zaigu; apirilaren 1ean 2:40ean Ziordin sartuko da eta 8:00ak aldera Atondotik atera.

## 11 Laguntzeko modu asko daude.

Kilometro bakarra gelditzen da, eta bestela batzordetan parte har dezake jendeak, baita antolatzen diren gauzatan ere. Laguntza ekonomikoa ez ezik, logistikoa ere behar da. Giroa sortu behar da eta abar.

**WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK**

LIBURU ALDIZKARI **MAKETAZIOA** KARTEL PAPER **GINTZA** APLIKAZIOAK

IRUDI KORPORATIBOAK **KOMUNIKAZIOA** PUBLIZITATEA

**gk**  
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 · 948 564 275 · info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1. Aitsasu